



ARGIA

PETROLIOA KRISIAN

Eta 2020ko udan hondoa jo zuen frackingak

9-11. orriak



**Arduradun politiko
euskaldunen gabezia
mahai gainean**

22 | EUSKARA



**Euskarazko
"hedabide lerratuak",
hazten eta txikitzen**

27 | KAZETARITZA



**"Ziklo iraultzaileak
ixtean, beti sortzen
da nahasmena"**

36 | JARDUN



Bizitarako agenda berezia dugu honakoa, norberaren egunerokoa ilargiarekin eta lurrarekin uztartzeko erraminta baita. Landareekin egiten ditugun lanak jaso eta ikastez gain, agendan idatziko ditugu bakoitzak, gure bizitzako hitzorduak, egin beharreko lanak, gogoan hartu beharrekoak eta gainerakoak. Eta aldi berean, agendan irakurri ahalko dugu ilargiaren arabera aste bakoitzean lurra nola landu: zer erein, zer landatu, nola inausi, nola tratatu, zer uzta jaso, nola txertatu...

BARATZEA
BASOA
LORE BARATZEA
FRUITU BARATZEA



Ilargia eta landareak 2021

AGENDA

14€

Jakoba Errekondo
Antton Olariaga

EROSTEKO
argia.eus/azoka
943 37 15 45

ARGIA

BIZI BARATZEA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU


Iritziak

- 17 | KARMELO LANDA
- 18 | SONIA GONZÁLEZ
- 19 | INMA ERREA
- 19 | CASTILLO SUÁREZ
- 20 | HAIZEA NÚÑEZ

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | BERANDUEGI

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT



52 | BBVA-REN KRONIKAGILE BELTZA

Oriol Malló kazetaria elkarriketatu du Argi-Kontra atalean Leire Regadasek. Mallók BBVAko abokatu batek eta ustelkeriaren aurkako fiskal batek emandako infomazioan oinarrituta bankuaren historia beltza kontatzen duen liburua argitaratu du.

Elkarriketak eta erreportajeak

9 | NET HURBIL
**2020ko uda hartan
COVID-19a zabaldu zen,
klima zoratu eta fracking-ak
porrot egin zuen**
Pello Zubiria Kamino

12 | IBAI OSINAGA | MUSIKA
**"Euskaraz egiten diren gauza asko oso
txarrak dira, baina ezin da esan"**
Reyes Ilintxeta

22 | EUSKARA
**Arduradun politiko euskaldunak
behar ditugu.**
Malen Aldalur Azpillaga

27 | HEDABIDEAK
**Euskarazko "hedabide lerratuak",
hazten eta txikitzen aldi berean?**
Xabier Letona Biteri

32 | B. CARRERE | EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOA
**"Trantsizio energetiko-ekologikoaren
aldeko nahia du elkargoak"**
Jenofa Berhokoirigoin

36 | POLITIKA | JARDUN
**"Garrantzitsuena indarrak batzea da
Euskal Herri langilearentzat
alternatiba politikoa sortzeko"**
Axi Lopez

44 | KULTURA | A. LIZARRALDE ETA U. MUÑOA
**"Beste gizon eredu bat agertu nahi
dugu taula gainean baina errailetatik"**
Estitxu Eizagirre Kerejeta

50 | KULTURA
**Euskaldunak indigenizatzen ditu
Zinemaldiak?**
Gorka Bereziartua Mitxelena

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amalia Lekunberri, Axi Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin,
Jon Torner, Lander Arbelaiz,
Mikel Eizagirre, Mikel García,
Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona,
Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olosolo,
Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta Interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure
egilek aitortu eta baldintza beretan
eginez gero. Are gehiago, gure edukiak
ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren
edukientzat da baliagarria,
baliteke beste testu eta argazki
batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA





Nork nori zor?

Eduardo Zubiaurre noizean behin ateratzen da Confefaskeko zuzendaritzako bunkerretik, gertuko hedabideen aurrera agertu eta Francis Fukuyama oker zela gogorarazteko: klaseen arteko talka bizi-bizirik dago. Horrela adierazi du oraingoan: "Langileei soldata jaiste ala lanik gabe uztea, langileen elkartasunaren arabera izango da". Alegia, krisiaren albo-kalteak ordainduko dituenak, era batera edo bestera, langileria izango dela. Irudian: Gazte bat Iruñeko Caixabanken egoitza gorritzatzen, larunbatean LABek eta Ernaik "Krisia kapitalak ordain dezala" lelopean egindako manifestazioan.

📷 UNAI BEROIZ ✍️ AXIER LOPEZ

MOTZEAN

Europako Osasun komisarioak Europar Batasuneko estatuei eskatu die COVID-19aren kontrako neurriak zorroztu ditzatela, "herrialde batzuetan dagoeneko egoera martxoan izan zena baino txarragoa ere badelako".

Joxemari Lejardi Gabixolak bi hilabete daramatza gose greban, Iruña-Veleia auzia "bide zientifikotik" bideratzea eskatzeko.

Bilbon 30 kilometro orduko abiaduran zirkulatzen dute jada autoek. Garraio pribatuaren erabilera murriztea eta istripuen larritasuna arintzea du helburu neurri berriak.

Oihane Bakedano Maidagan euskal preso hernaniarra aske geratu da, hemezortzi urteko kartzela-zigor osoa beteta. Hogeita hiru urte eta gero, aske geratu da Rufino Arriaga preso ordiziarra ere.

Hamaika eragile eta jende anitzen eskariari muzin eginda, prokuradoreak ez du jarrera aldatu eta Parisko Dei Auzitegiak bertan behera utzi du Jakes Esnal euskal presoak aske uzteko eskaera.

Azerbaijan eta Armeniaren arteko gatazka armatuak indarra hartu du joan den asteburutik.



Ecoembes, "ardi-larruz jantzitako otsoa"

 ZERO ZABOR

Ardi-larruz jantzitako otsoa", horrela definitzen du Europako hainbat talde ekologistak egindako azterketa batek Ecoembes konpainia espainiarra, Espainiako Estatuan udal eta mankomunitateek gaika bildutako plastiko eta ontziak ustez birziklatzen dituen enpresa. Plastikoekin lotutako 12.000 konpainia baino gehiago biltzen dituen sare boteretsua da Ecoembes eta *Talking Transh* txostenak argitan jarri duenez bera da Espainian administrazioek ontziak itzultzeko sistema -SDDR- ez zabaldu izanaren errudun nagusia.

Plastikoaren krisiaren irtenbide faltsuei buruz enpresa kutsatzaileek darabiltzatzen trikimailuak biltzen dituen eskuliburua plazaratu du Changing Markets fundazioak, mundu osoko 15 herrialdetan edari, elikadura, supermerkatu, petrolio edo petrokimika enpresa handiek hondakinak murriztea sustatu nahiko luketen lege berriei oztupoak jartzeko darabiltzaten teknikak azalduz. Coca-Cola, Colgate-Palmolive, Danone, Mars Incorporated, Mondellz International, Nestlé, PepsiCo, Perfetti Van Melle, Procter & Gamble eta Unilever enpresek 10 milioi tonako plastikozko aztarna zor diote munduari, uneotan planetak bizi duen plastiko-krisi larriaren erantzule nagusiak hamar korporazio handi horiek baitira. Baina, gainera, beraiek dira greenwashing eginez promesa hutsak egin eta irtenbide faltsuen propaganda eginez konsumitzaileak eta gobernuak distraitzen dituztenak.

Espainiari eskainitako atalean Ecoembes eta bere lobby estrategia aipatzen ditu ikerlanak, plastiko eta beste ontzien ekoizle eta banatzaile handiekin batera ahalegintzen delako administrazio publikoek ontzi itzulgarrien sistema (Espainian SDDR deitzen dena, Sistema de Deposito, Devolucion y Retorno) ezartzeko egiten dituzten saiakerei etengabe oztupoak jartzen.

Residuo Cero aliantzan biltzen diren Ekologistak Martxan, Lurraren Lagunak eta Retorna erakundeek salatu dute Ecoembesek azkenaldian asmatu duen iruzurra: Ecoembesen Reciclos proiektua. "Sistema Recompensa (SDR) izeneko proiektua da, hondakinak edukiontzi horian edo leku publikoetan instalatutako makinetan uzten dituztenak sarituko lituzkeena. Iruzur bat, arazoa konpontzen ez duena eta ontziak benetan itzultzeko balio duen SDDR delakoa administrazioek ez ezartzea lortu nahi duena".

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Vita activa



ARITZ GALARRAGA

Hannah Arendt da autore bat nahi baino gutxiago irakurri dudana. Baina, irakurri dudan gutxi hori, egin zaidana oso jakingarria: 1906an Alemanian sortua, hazia, hezia, 1933tik zortzi urtez Frantzian erbesteratua, 1975ean hil arte Estatu Batuetan laketua. Nazien erruz aberrigabe, gizabanako judutar *femini generis* gisa definitzen zuen bere burua. Eta, inoiz aitortu zuenez, bizitza osoan zehar ez zuen maite izan herri edo kolektibitate, izan aleman, izan frantses, izan estatubatuarrik, ez eta langile klase edo bestelakorik ere. Izan ere, soilik lagunak maite zituela zioen, eta bestelako maitasun motarik ezagutzeko ezgauza zela.

Euskaraz haren liburu bakarra daukagu, *Eichmann Jerusalem*, obra nagusietakoa. *The New Yorker* aldizkariko berriemaile gisa joan zen Arendt Jerusalemera, 1961. urtean, nazien goi-kargu izandako Adolf Eichmannen epaiketa jarraitzera. Eskandalua sortu zuen liburuak, bertan esaten baitzen naziak ez zirela deabrua, gehientsuenek aginduak bete baino ez zutela egiten, gutxi-asko gizabanako orok egingo lukeen, are egiten duen gisara. Noski, hori idatzi eta gero, bera bilakatu zen deabru judutar ez gutxiren begietara. Outsider bat izan zen Arendt, baita pentsamenduari dagokionean ere.

Pentsalari independente, ezein kategoriatan sartzen ez zena, etengabeko mugimenduan beti, pluraltasuna defendatu zuen, judutarrak palestinarrekin nahastu behar zirela, boterea komunean aritzea, jardutea, ekitea dela, egiten dugunaren gainean idatzi beharra dagoela. Horrek guztiak kitzikatuta hasi naiz irakurtzen *Vita activa* lan ezaguna. Nahiz izenburuak egiten duen talka frontalki nire bizi proiektuarekin, gehiago baita *vita contemplativa*. Baina ez ote dira, hain zuzen, deseroso sentiarazten dizuten testuak, autoreak, gehien pentsarazten dizutenak? Eta, Arendtek esan zigun, ez dago pentsamendu arriskutsurik. Arriskutsua dena, benetan, ez pentsatzea da. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



"REALEKO JOKALARIEK PRENTSAURREKOAK EUSKARA HUTSEAN ESKAINIKO DITUZTE"

REAL SOCIEDAD FUTBOL KLUBA

"Klub txuri-urdina, aldizka, euskara hutsezko prentsaurrekoak egiten hasi da gizonezkoen lehen taldeko jokalariekin, eta laster hasiko dira emakumezkoen taldeko jokalaria ere egiten. Horrela, aldian-aldian, Realeko lehen futbol taldeetako jokalariek ohiko prentsaurrekoak euskara hutsean eskainiko dituzte", adierazi du klubak. Gipuzkoa Berdinago dinamikaren barruan hartutako erabakia da. Hizkuntza ofizialen arteko oreka berdinagoa izatearen alde 2017. urtetik martxan den ekimena da. **2020/09/22**



Kukurrukuak Confebasken alde?



JUAN MARI ARREGI

Eusko Jaurlaritzak, Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen sailburuaren bitartez, xantaia sistematikoa egin du langileen aurka krisi ekonomikoa hasi zenetik, eta COVID-19rekin areagotu baino ez du egin Confebask enpresarien elkartearen aldeko jarrera.

Tapiak sektore pribatuan langileen soldatak jaistea eskatu du berriz ere, enpleguari eusteko neurri gisa; ez da lehen aldia izan, ezta azkena izango ere, seguruenik. Enpresen itxiera eta deslokalizazio iragarpenen aurrean, langileek soldatak murriztu edo lantokiz aldatzea aukeratu beharko dutela ere esan izan du.

Sailburuari ez diogu inoiz entzun akziodunen dibidenduak edo Euskal Herriari gutxi ez diren enpresa handietako presidente eta zuzendarien milioi askoko nominak murrizteko eskatzen. Eusko Jaurlaritzak duen espezialista onena da, langileen aurkako eta Confebasken aldeko mezuak jaurtitzen, Kapitalari mesede egiteko.

Orain, EAJ eta PSE-EEren arteko koalizio gobernuarekin, lehendakariordea eta Lan sailburua alderdi sozialistakoak dira. Idoia Mendiari galdetu beharko litzaioke ea ados dagoen Jaurlaritzako bere kideak erabiltzen duen hizkera xantaiatsu horrekin. Hala ez bada, eguneroko ekintzen bidez frogatu beharko du, bestelako neurri sozial eta ekonomiko batzuk aurrera eramanez. Adibidez, eragile sozialekin hitz egiteko mahaia eratu nahi badu, lehenik eta behin onartu beharko du albo batera utzi beharko dituela Iñigo Urkulluren gobernuak Confebasken zerbitzura orain arte egindako kukurrukuak eta politika publikoak.

Idoia Mendi, ados al zaude Arantxa Tapia zure gobernuakidearen xantaiekin? ●



WIKIMEDIA

Espazio publikoa lapurtu digute

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Norbere etxeko balkoiaren tamainari begira jarri gaituzte eta espazio publikoa ostu digute. Pandemia aukera paregabea zen babesgabeen araberako auzoak birpentsatzeko, oinezko eta bizikletek espazio publikoa konkistatzeko, hezkuntza parkeetara ateratzeko. Pandemia, ordea, aitzakia izan da espazio publikoa negozio pribatuen terrazekin betetzeko, -bereziki migratzaileak jomuga dituzten- polizien kontrolak areagotzeko, eta Baionan ikusi berri dugunez, etxegabeak kaletik botatzeko.

Espazio publikoaren pribatizazio, turistifikazio eta gentrifikazioari indartsu batu zaio autoritarismoa: debekuak, mugak, isunak, kontrolak eta bazterketa, jendea kaletik kaleratzeraino. Hipokrita eta zinikoa da gero, pandemia baliatzea zer eta pandemiaren aurrean babesgabe direnak are babesgabeago uzteko: Baionako udal ordenantza berriaren arabera, aterperik ez dutenak ezin dira kalean egon, eta polizia eta kamera gehiago agindu dituzte karriketan.

Postalezko hiria gezurtatzen duen jendea bistatik kendu nahi dute, gure agintari askoren joerak esplizitu eginez. Ez baita berria: ez dute gazterik, beltzik eta pobrerik nahi kaleetan; ez dute nahi kontsumitzen ez duen herritarrik; ez dituzte nahi garraio eta bizitza jasangarriagoak gure herrietan. Kontrol eta gehiegikeria polizial arrazisten ugaritzea han-hemenka salatu dute pandemia hasi zenetik, eta ikusten ari gara nola bete diren espaloiak tabernetako terrazek; nola den berriro ere autoa jaun eta jabe; nola gestionatzen duen administrazioak espazio publikoa interes jakin batzuen arabera, herritarren zerbitzura jarri beharrean.

Isolatuta nahi gaituztelako, lehentasunen artean izan beharko genuke umeez, gazteek, zaharrek, zaurgarrienek eta oro har herritarrek okupatzea dagokigun espazio publikoa. Bestela, konfinamendu aro berri bati emango diogu hasiera: jabetza eta eremu pribatuetan baino ezingo dugu aske ibili, espazio publikoak gero eta gutxiago baitu publikotik. ●

2020KO UDA HARTAN COVID-19A ZABALDU ZEN, KLIMA ZORATU...

ETA FRACKING-AK PORROT EGIN ZUEN

COVID-19ak eragindako anabasaren zalapartak eta klimaren aldaketak hedabideetan uzten dituen irudi beldurgarri bezain espektakularrek estalita, gutxi hitz egiten da petrolioaren krisiaz, tartean fracking-aren gainbeheraz. Bestela esanda, herritarrek ari daitezkeela eztabaidan hondamendi bakoitzaren xehetasun txikienez, guztien oinarrian dagoen sakoneko fenomenoaz ohartu barik: hazkunde ekonomikoa bere osotasunean dago krisian.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO



Gogoratzen fracking industriaren iraultza? Petrolioaren urritzeari konponbidea ekarriko ziola, AEB bihurtu zela berriro petrolio esportatzaile... Kurt Cobb energian adituak kontatu du zer bilakatu den euforia hura *Resource Insights* webgunean plazaraturiko *Ipar Dakotako bluesa: fracking-aren heredentzia* kronikan.

Ipar Dakotara (AEB) duela hamar urte iritsi zirenean petrolio berriaren bilatzaileak, agintariek bezala herritar gehienek besoak zabalik hartu zituzten. Bakken Formation hobian, bi kilometroko sakoneran, 3.000-4.000 milioi arbel-petrolio omen zeuden zain, nork aterako. Ingurumenaren aldeko militanteen eta lur sakratua defenditzen zuten

Lehen Nazioen protestak gorabehera, hankaz gora jarri zuten lurralde osoa. Ez zuen asko iraun behar beroaldiak. Petrolioaren prezioak hondoratzeak estuasunean jarrita fracking-aren industria –errentagarri izateko petrolio ga-resti saldu beharra daukana– errematea eman dio 2020an COVID-19ak ekarri duen atzeraldiak.

Frackingaren kiebrak: zorrak herritarrentzat eta kalteak klima, natura eta osasunarentzat

Uztailaren 12an *New York Times*-ek argitaratu zuen: "AEBetan fracking enpresak kiebra jotzen ari dira, iturrien inguruetan bizi direnei utziz pozoi arrisku-tsuzko kutsadurak eta herritar guztien bizkar hauek garbitzeko kosteak". Kronikaren hasieran honako kasu bat azaldu zuen.

2020 hasieran kiebra zuen Texasako MDC Energy konpainiak eta zortzi hila-bete beranduago bere hobi abandonatuek artean metanoa isurtzen jarraitzen zuten, Hiroko Tabuchi kazetariak frogatu zuenez. Kalkulatzen da konpainiak 40 milioi dolarretik gora gastatu beharko

lukeela bere petrolio iturriak eta inguruak garbitzen, baina gaur MDCEk zor ditu enpresa osoak balio duena baino 180 milioi dolar gehiago.

Urtea amaitzerako 250 bat petrolio eta gas konpainiak kiebra joa izango dute AEBetan, aurreko bost urteetan porrot egindako guztiak halako bostek. Konpainiotako asko hasieratik aritu dira oso zabar beren ustiapen guneetako mantenu lanei zegokienean, esku batekin zekenkeriaz gastuetan aurreztuz eta bestearekin inguruetan kutsadura zabalduz.

Fracking iturri arrunt bat itxea 300.000 dolar kostatzen da, administra-

zioko funtzionarioek bezala konpainiek eta finantza analistek aurreikusi zutena baino askoz ere gehiago. Konpainiek ez dute itxiera lanetarako aski diru gorde eta, ondorioz, legeak eskatzen dituen garbiketa lanen kosteak administrazioari etorriko zaizkio... eta ororen buru, zerga bidez pagatu beharko dituzten herritarrei. Kutsadura ezabatzeko lanak atzeratzen direnez –alde batera utzita ingurumenari eta lurjabe askori egindako kalte asko erremediatu ezingo direnak– hurbil bizi diren komunitateek nozitu behar dituzte abandonatutako iturri eta gainerako instalazioei darien metanoa –klimarentzako karbono dio-

Industriako iturriek berek aitortua dute 2008tik hona fracking enpresek inbertitutako kapitalaren %80 suntsitu dutela. Kiebrak ugaritu dira sektorean. Ustiapen-bizi laburra duten putzuak itxi ahala beste berriak zulatu beharra dago, baina zulaketak arras gutxitu dira: 2019ko abuztuan Ipar Dakotan 48 zulatu ziren, aurtengoan 11 baizik ez. Estatu horretan, urte betean produkzioa gutxitu da eguneko 1,46 milioi upeletik eguneko 0,85 miliotara. "Ondorioak –dio Cobbek– Ipar Dakotan ez dituzte soilik sufritzen petrolioaren industriak eta horien kontratek. Beroaldiarekin batera hazi dira etxegintza eta zerbitzu publikoak ere. Hemendik aurrera izango ote da etxe horietan bizitzeko adina jende? Eta azpiegiturak bezala zerbitzuak ugaritu dituzten hiriek nondik eskuratuko dituzte horiek pagatzeko behar diren diru-sarreak? Estatuko gobernuaren sarrerren %53 petrolio eta gasaren zergetatik datoz eta hauek aurtun %83 urriagoak izango direla uste da. Porrot egin duten konpainiek abandonatuta lagatzen dituzte zuloak, iturriak eta gainerako azpiegiturak. Garbiketa lanak ordaintzeko dirurik ez dute utziko gehienetan".

Ipar Dakotan gertatzen ari dena mundu mailako testuinguruan kokatu du Antonio Turiel Martinez fisikari espainiarrak (Leon, 1970), CESIC Espainiako Ikerketa

Zientifikoen Zentroan ikerlari aritzeaz gain, energia krisiaren inguruan mobilizaturako aktibista denak. *The Oil Crash* blogean idatzi duenez, "gogor eztabaidatzen den bitartean ea COVID-19 arra den ala emea, askoz modu isilagoan ari dira gertatzen hainbat fenomeno gure mundua sakon astintzen dutenak". Horietako bat da neurri handi samarreko petrolio konpainien porrot masiboa. Soilik AEBetan, abuztua arte 55.000 milioi dolarreko galerak zeuzkaten metatuta. Ez da AEBetako fracking-a bakarrik gainbehera doana.

Abuztuan kiebra jo zuen itsaspeko petrolio bilaketan munduko konpainia handiena zen Valarisek. Petrolio industrian munduko kontratista nagusietakoa den Schlumbergerrek 21.000 enplegatu kale-ratu ditu, asko murriztu zaiolako jardue-ra. Shell multinazional mitikoa bera Dow Jones indizetik kanporatu dute, mende bat baino gehiagok burtsako multzo hautatuan egon ostean. "Petrolioaren urrezko garaia joan da eta ez dira itzuliko. Petrolioaren industria erori bada, berriz, ekonomia berpizteko itxaropenik ez dago". Hainbestera ote?

DESHAZKUNDE BORTXATUA

Peak oil deitzen da erruduna. Energiaren Nazioarteko Agentziak duela bi urte aurreikusi zuen 2025ean munduak egu-

neko 100 milioi upel petrolio eskatuko zituela, baina egarria 34 milioi upelen faltan geratuko zitzaioala ase gabe. Eskasia 13 milioi upeletara murriztea posible izango omen zen bi baldintza betetzekotan: AEBek fracking produkzioa hiru-koiztea eta mundu osoan inbertsioak asko handitzea. Alderantziz esanda, one-nean ere 2025erako munduko ekonomiaren odola den erregaiaren %13 faltako zela. Eta artean ez zen COVID-19rik.

Jada 2015ean nabarmendu zen tendentzia aldaketa petrolio ekoizpenean, handitzea gelditu eta doi-doi mantendu ostean, 2018an hasi zen beheraka. Horra zergatik ez zen *peak oil*-a 2015ean gertatu: AEBek fracking-ek lortutako petrolioari esker. Baina "mirarizko petrolio" hori ez zen eskuratzen ahal dirua metaka galdu barik, hain da garestia lurrari hura kentzeko teknika. 2016rako bistakoa zen fracking-ean inbertitzea dirua galtzea zela eta petrolio mota horren produkzioa %15ean txikiagotu zen.

Orduan azaldu zen Donald Trump bere *Make America Great Again* harekin, berriro AEBak munduko petrolio ekoizle nagusi bihurtzeari lehentasuna emanaz. Eta bai, urteko 13 milioi upel ekoiztera iritsi ziren AEBak. Ez fracking-a erren-tagarriago bilakatzearekin, baizik konpainiei zergak barkatu edo arintzearen

xidoa baino askoz kaltegarriagoa dena- eta gainerako kutsagaiak.

Hori bai, eskueran darabilten informazioari esker gainera zetorkiena garaiz usainduta, porrot egindako konpainia askotako buruek txalupa ondoratu aurretik ondo lotu dituzte beren salbazio-altxorrak. Hasieran aipatu dugun MDCK kiebraz jo baino hilabete gutxi lehenago 8,5 milioi dolar pagatu zizkion haren hartzekodun nagusietakoa den Natixis banku frantziarraren buruari, aholkularitza zerbitzuengatik, omen (gogoratu kobratu ezinezko 180 milioitik gora utzi dituela zorretan). Chesapeake Energy konpainiak maiatzean aurkeztu zuen kiebraz deklarazioa baino pare bat aste lehenago bere exekutiboaren artean 25 milioi dolar banatu zituen sarritzat 'bonus'-etan. Diamond Offshore Drilling konpainiak administratziotik COVID-19ari aurre egiteko pizgarritzat 9,7 milioi dolar jaso zituen zerga-arinketatan eta geroztik kopuru berdintsua pagatu die sarritzat kiebraz kudeatzen geratu diren exekutiboek.



poderioz. Alabaina, 2019an petrolioaren prezioak mundu osoan jaistearekin amaitu zen festa.


Fracking-a hondoratzen ari da, atzean sekulako zorraz utzita. Eta inork ez daki 2025erako iragartzen zen ekoizpen defizita nondik berdindu ahal izango den, petrolio konpainiak berak elektrizitatean eta bestetan inbertitzen ari dira ezinbestean. "Beraz -dio Turielek- ez zaitezte harritu petrolioaren (batik bat benetakoaren) inguruan gatazkak ugaritzen baldin badira, jada gertatzen ari den bezala. Denentzako adina petrolio ez baldin badago, istiluak izango ditugu. Orain ikusi beharko da nola kudeatuko

den energiaren gutxitzea, zein herrialde izango diren kaltetuenak eta zeinek eutsiko dion hobekixeago".

Horrela heldu gara 2020ko udazken konplikatu honetara, zeinetan metatu baita krisi sorta bat: COVID-19a, klimaren aldaketa bere beroaldi eta muturreko fenomenoekin -uda honetako urakan kopurua historikoa izan da-, Australia-koen ostean Brasil eta AEBetako suteak, 2008ko zor krisi konpondu gabea, *peak oil*-aren osteko petrolio krisia... Badira uste dutenak aurrekoak bezala krisi hau ere pasako dela, merkatuek eta gizakia- ren jakintzak eramango dutela berriro garapen bidera. Beste batzuek, aldiz, uste

dute dena elite batek planifikatutako jorkaldia dela, konspirazio handi bat. Batzuek bezala besteek sinetsi nahi dute norbaitek gidatzen duela mundu zoratu honen norabidea eta horretan daude oker: "Inor ez dago lemazain, ezer baino lehen hori ulertu beharra daukagu. Ez norabidea aldatzeko, baizik eta norabide bat eduki ahal izateko".

Aspaldi esana dago deshaszkundea nahitaez gertatuko dela, edo era ordenatu eta zuzen batean, edota modu desordenatu eta bidegabekeriaz josian. Iku-siko. Baina metatu zaizkigun krisiek ez daukate konponbiderik lehengo zorrei zor berriak gehituta bakarrik. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hemari 23 - 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

Ibai Osinaga

KANTUAN BETI, AURREIRITZI ETA PANDEMIEN GAINETIK



EUSKARAZ EGITEN DIREN GAUZA ASKO OSO TXARRAK DIRA, BAINA EZIN DA PUBLIKOKI ESAN



22 urte besterik ez eta kultura musikal itzela du Ibil bedi taldeko sortzaileak. Rock, punk, Oi!, rap, trap... estilo guztietatik elikatzen da euskal pop berriaren eragile hau. Euskal musikaren mugak zabaldu behar direla aldarrikatzen du, Irunberritik euskaraz abestea aldarrikatzen duen bezala.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Zer aurkitzen duzu herrian?

Lasaitasuna. Ez duzu hiri batean izan dezakezun anonimotasuna, baina hori, aldi berean, ona da. Denok ezagutzen dugu elkar eta kohesio handia dago adin guztietako jendearen artean. Gainera oso herri bizia da. Iruñean sortu nintzen eta han bizi ginen lanegunetan, baina lagunak eta giroa beti hemen izan ditut.

12 urterekin eman zenuen lehen kontzertua. Nola izan zen hura?

Bai. Eta baxu jotzaileak 11 zituen. Talde gehienek esaten dute haien hastape-

netan izugarrizko gogoia zutela banda bat egiteko eta haien gustuko musika jotzeko, baina gure kasuan sorrera ez zen halakoa izan. Niri musika gustatzen zitzaidan betidanik eta Irunberriko San Felizes kaleko jaietan Iker Ariz laguna, bere ama eta hirurok elkartu ginen zerbait egiteko jendaurrean. Amak bizpahiru kanta abestu zituen eta guk gitarra eta bateriarekin lagundu. Berehala Julen Abaurrea laguna elkartu zitzaigun. Baxu bat oparitu zioten eta esan genion entsegetara etortzeko. Abuztu hasiera zen eta hilabete bukaeran lehen kontzertua

eman genuen Ikerren amaren herrian, Tabarren. Horrela sortu zen Altxatu.

Inguruko herrietan eta hemengo taberna batean jotzen genuen eta berehala hasi ginen gure abestiak idazten. 14 urte genituela, 2012an, lehen diskoa grabatu genuen. Handik gutxira Gor diskotxekoek entzun zuten ez dakit nola, eta haiek deitu egin ziguten beraiekin grabatzeko. Hurrengo urtean plazaratu genuen diskoa Gor zigiluarekin.

Ibilbide azkarra mutiko batzuentzat...
Hala da. Hasieran jendeak gutaz asko



Ibai Osinaga Gogorcena

IRUÑEA, 1998



Iruñean sortu eta han bizi izan arren, oso Irunberrikoa da Osinaga. 12 urterekin herrian atera zen lehen aldiz eszenatokira bi adiskiderekin eta segidan Altxatu talde entzutetsua sortu zuten. Baionan Euskal Ikasketen gradua amaituta Irunberrira itzuli eta beste proiektu bat jarri zuen abian duela urte eta erdi: Ibil bedi. Pop musika hamaika ñabardurarekin. Iaz lehen diskoa plazaratu zuten, *Berandu baina garaiz*, eta orain bigarrena ari dira grabatzen.



hitz egiten zuen, baina hirugarren diskoarekin nabaritu genuen gazte izateagatik sortzen genuen erakar-garritasun hori jada apaldua zegoela, nolabait. Eta lastima da. Talde baten funtsa gaztetasuna izatea ez da ona, eta guretzat ere hala izan zen. Guk gure musika egin nahi genuen, baina jendeak Altxatu entzun nahi zuen oso gaztetxoak ginelako.

Beraz, musikari baino gehiago zuen adinari begiratzen zioten?

Sentsazio hori dugu. Gazte izateagatik jendeak esatea "Altxatukoak zer onak diren" ez zen lagungarria izan guretzat. Esan talde bat ona dela bere musika gustatzen zaizulako, ez soilik gazteak edo desberdinak direlako, baina euskarazko musika alorrean kritika falta izugarria dago. Euskaraz ateratzen den edozein gauza onartzen da. Ez du inork negatiboki kritikatzeko. Hori arazo bat da. Niri iruditzen zait gaur egun euskaraz egiten diren gauza asko musikalki edo estetikoki oso txarrak direla, baina ezin da publikoki esan. Euskaraz baldin bada, automatikoki ontzat ematen da. Musikarien artean bai hitz egiten dugu horri buruz eta kritika egiten da, baina publikoki ezin da esan. Tabu bat da. Literaturan kritika gehiago dagoela iruditzen zait, baina musikan ez.

Egia da, bestalde, dena behar dugula euskaraz, baita zaborra ere, baina ezin da esan zaborra dela. Gurea hizkuntza minorizatua izan arren, nik uste dut kritika zintzoa egitea positiboa dela.

Musikaren panorama irekitzen ari da Euskal Herrian?

Poliki-poliki bai. Guk, adibidez, gure kontzertuetan beti esaten dugu popa aldarrikatzen dugula. Estilo hau oso kritikatu izan da hemen eta azken urteetan, Ken Zazpi kenduta, ez da beste erreferenterik izan.

Orain gazteen artean oso modan dauden Oi!, punk eta rock'n roll taldeak (Brigade Loco, Rotten XIII, Arkada Sozial...) testosterona hutsa dira. Gizontasunaren irudi hegemonikoa hor dago. Popa gehiago lotua dago feminitateari. Ematen du gizon batek ezin duela halakorik entzun eta iruditzen zait diskurtso matxista hori oraindik badagoela musikan eta oso jende gaztearen artean, gainera. Zuk ikusten duzu Oi! kontzertu bat eta musikari gehien-gehienak edo denak gizonak dira, kantatzeko modua oso erasokorra da eta jendeak ere oso modu bortitzean jokatzeko du kontzertu horietan. Nik musika hori maite dut eta entzuten dut, baina soilik hori hartzen badugu euskal musikatzat, hori delako orain modan dagoena, musika molde hori maite ez duen jendeak ez du inoiz entzuten euskal musika. Nesken artean, batez ere, euskal musikatik at bilatzen dute askotan gustuko musika. Popa, reggaetona, trapa, rapa... euskaraz egiten badituzu, agian lortuko duzu jende horrek entzutea eta beste diskurtso batzuk garatzea. Gu bide horretatik goaz. Gustatzen zaigun musika egiten dugu. Nahi dugun estiloa konplexurik gabe egitea da

euskal musikan oraindik dugun erronka.

Zergatik euskaraz?

Niretzat Irunberritik euskaraz kantatzeko hautua erabaki politiko bat da. Jendea harritu egiten zen gu ikusita. Niri hasieran ahalegin berezia eskatzen zidan, orain ez bezala, eta Altxatukoek ez genuen inoiz egiten euskaraz gure artean, baina euskaraz abesten genuen. Gure aletxoa zen hori.

Leku euskaldunetatik kantatzen dutenek ez dute guk bezala ikusten. Izarorentzat, adibidez, euskaraz kantatzea normala da eta horrez gain ingelesez edo gaztelaniaz abesten du. Oso ongi, nahi duzuna egin, baina hor euskarak indarra galtzen du, nolabait. Ongi dago euskaraz ez dakitenek zerbait galtzen ari direla sentitzea. Eztabaida hori ere hor dago. Iruñerrian atera diren talde askok euskararen aldeko hautua egin dute.

Beste alde batetik, batzuek uste dute musikaren estiloaren arabera hobe dela hizkuntza bat edo bestea. Baina nire ustez hori ez da horrela. Duela zenbait urte, adibidez, estatuko indie talde askotxo hasi ziren ingelesez kantatzen, sasi ingeles batean, eta gero batzuk, etsita, aldaketa egin eta gaztelaniaz hasi ziren, naturalago.

Euskaldunon kasuan, gainera, esan beharra dago euskarak baduela exotismo puntu bat eta horrek ere laguntzen duela mundu mailan. Hori aprobetxatu behar dugu jendeak ikus dezan gauza guztiak egin daitezkeela euskaraz. Nahi badugu

euskarak posizio on bat izan dezan, edozein gauza eta edozein musika mota landu behar dugu, arazorik gabe.

Nola izan zen Altxatutik Ibil bedirako pasaera?

Kaotiko samarra. Altxaturen despedidarik ez dugu egin iruditzen zaidalako agian egunen batean zerbaitetarako elkartzen ahal garela, nahiz eta Iker eta Julen orain musika munduan oso sartuta ez egon.

Nik aurrera jarraitu nahi nuen, baina ez nuen ikusten hor segitzeko modurik eta horregatik pentsatu nuen hobe zela beste zerbait sortzea.

Beste proiektu txiki batean nenbilen duela hiru urte nire ama hil zenean. Oso

latza izan zen eta horren ondorioz hasi nintzen abestiak idazten, barruan nuen guztia kanporatzeko. Argi ikusi nuen kanta horiek ezin nituela Altxaturekin egin.

Amets Aranguren lagunarekin aspalditik banuen zerbait egiteko ideia. Egun batean bera eta Areta Senosiain kontzertu bat ikustera etorri ziren eta bukaeran esan zuten talde bat egin behar genuela.

Horrela sortu zen Ibil bedi?

Bai. Handik atera eta whatsapp talde bat egin zuten Benetan izenekoa, oraindik erabiltzen duguna. Uztailean landetxe batera joan eta kanta egin genituen. Gerora bi lagun gehiago elkartu zitzaizkigun: Eder Escalera institututik ezagutzen nuena, Amets eta Areta bezala, eta Zangozako Javier Larrañeta. Iazko urtarrean bildu ginen bostok lehen aldiz, maiatzean Amoroton grabatu genuen lehen diskoa *Berandu baina garaiz* eta ekainean plazaratu genuen. Egia esan dena oso azkar egin dugu.

Eta orain bigarrenaren bidean?

Hau hemen, etxean, grabatuko dugu. Gaur egun dena asko aldatu da. Orain diskoetxe bat ez da ezinbestekoa disko bat grabatzeko edo manager moduan aritzeko. Eta pena da. Lehen zigilu bakoitzak bazuen bere estiloa eta askotan zure gustuko diskoetxeak ateratzen zuela erosten zenuen haiena zelako. Diskoetxearen izaera, estiloa, nabarmena zen eta hori dena galdu da.

Orain gazteen artean oso modan dauden Oil, punk eta rock'n roll taldeak (Brigade Loco, Rotten XIII, Arkada Sozial...) testosterona hutsa dira. Gizontasunaren irudi hegemonikoa hor dago"

Durangoko Azoka buruan duzue aurten?

Oso azoka arraroa izanen da eta ziur aski talde txikiak kontzertuen zirkuitutik kanpo geldituko gara. Guk ideia genuen urrian edo azaroan ateratzea. Aurrekoa ekainean atera genuen eta oso data txarra dela ikusi genuen. Jende guztiak Durango izaten du jomuga eta hori ere ez da ona, nire ustez. Berrikuntza guztiak biltzen dira oso denbora gutxian eta ez dizu denborarik ematen dena asimilatzeke eta entzuteke. Dositkatzea hobe dela uste dugu, baina hala ere, automatikoki guk ere data horietan atera nahi dugu. Gure ideia zen grabatzea eta urria-azaroan aurkezpen kon-

tzertuak ematea, baina orain ezin duzu emanaldirik eskaini...

Kontzertu bat dugu urrian, besterik ez. Uztailean bat egin genuen Gasteizen formatu akustikoan, 60 pertsonaren aurrean eta Lekeition ere izan gara irailaren hasieran. Abuztuan hiru genituen Baigorri, Irunberrin eta Iruñean. Lehenengo biak bertan behera utzi zituzten eta Iruñekoa hastear zegoenean izugarritzko euri zaparrada bota zuen eta ezin izan genuen egin.

Egoera honek kinka larrian jarri zaituzte?

Gu agian ez gara horrenbeste sufritzen ari, ez gara honetatik bizi eta ez dugu inor kontratatzen, baina egoera latza da jende askorentzat. Musikaren mundua bai, oro har kinka larrian dago, lanpostu asko dagoelako atzean.

IPAR ETA HEGOALDEKO GAZTEEN ARTEKO HARREMANA

"Baionan hiru urte bizi izan naiz eta gure arteko harremanik ez dagoela iruditzen zait. Oso zaila da. Oro har uste dut ez-ezagutza handiagoa dugula Hegoaldeko Iparraldeari buruz. Gu Ipar Euskal Herrira joaten garenean Iparraldera goazela esaten dugu, eta haiek, aldiz, etortzen direnean zehazki zein herri edo hiritan ibili diren esaten dute. Gu turismoa egitera joaten gara. Egia da, bestalde, erreferente komun asko ez dugula. Hemengo umorea, txisteak... oso espainiarrak dira. Musika kontuetan bi aldeek partekatzen dugun talde bakarra Berri Txarrak izan da. Halako erreferenteak falta dira gaur egun".

Ibil bedi, zergatik?

Izena aukeratzea oso zaila da. Gustatu zitzaigun estetikoki orekatua delako eta gure arazoez hitz egiteko, modu terapeutikoan sortu zenez, ongi islatzen du bizitzan aurrera joateko gori.

Zenbat aldiz deitu dizuete Ibil bide?

Askotan!

Zein da zuen estiloa? Pop-....?

Pop. Besterik ez. Gorka Urbizuk zioen rock talde bat zela Berri Txarrak eta rockak elementu asko hartzen dituela bere barnean. Guri gauza bera iruditzen zaigu poparekin. Azken finean musika popularra da, erraz uler daitekeena.

Hasieran pop-folk esaten zuen jendeak, biolin bat ikusten duten unean folka dela pentsatzen dutelako, baina pop da.

Lehen diskoarekin alderatuz nolakoa izanen da bigarrena?

Bietan letrak oso pertsonalak dira, baina oraingoak kanta positiboagoak direla esanen nuke. Aurrekoan, bai nireak bai Ametsenak, tristeagoak ziren. Abesti terapeutikoak, une zailetan sortuak zirelako, baina tristeak. Oraingoak bereziki amodio kontuak dira. Ametsen abestiak nireak baino hobeak direla iruditzen zait oraingo honetan. Oso politak.

Abesti bat oso pertsonala izatea lortzen duzunean jendeak bere egiten du. Bere sentipenekin lotzen ditu. Unibertsal bihurtzen da. Hori esan didate, adibidez, *Ama* kantari buruz.

Diskoak nork eta zertarako erosten ditu?

Kontzertuetara joaten den jendeak. Ni orain friki samar bilakatu naiz eta binioloak baino ez ditut erosten. Musika entzuten dut Spotifyn. Durangon bai saltzen dira, baina sinadurarengatik gehienbat. Estetikoki polita izatea, diseinua edota abestien letrak ematea baloratzen da. Musika baino zerbait gehiago eskaini behar duzu. Musika entzuteko modua asko aldatu da. Hamar kanta edo gutxiagoko diskoak egiten dira eta kantak ere motzagoak. Irratietan jartzen diren kantuen estribilloak beti daude 45. segundoa baino lehenago, bestela akabo.

Jarraituko duzue izaten arratsaldeko zortzietako talde bat?

Bai, baina orain pandemiarekin dena aldatu da. Orain denok gara arratsaldeko zortzietakoak eta ohitu beharko dugu



musika bortitza ere eserita ikusten. Hori poparentzat positiboa dela iruditzen zait, jendeak ikusiko duelako edozein musika estilo ikus daitekeela nahi duzun bezala eta nahi duzun ordutan. Gu, adibidez, Berlinera joan gara uztailen talde oso punki bat ikustera eta badirudi musikoarekin eta eserita ikusi beharko dugula.

Zer ikusten duzue eszenatokitik?

Bitxia da, baina guk alderaketa egiten dugu sare sozialetan. Twitterren jarraitzaile gutxi ditugu, baina ditugunen artean askotxo nahiko pertsona ezagunak dira. Instagramen 16 eta 24 urte bitarteko jende asko dugu, baina askotarikoa, eta Facebooken aldiz, oso jarraitzaile gutxi. Kontzertutan ere halako panorama ikusten dugu. Altxaturekin oso ezberdina zen. Gure adinekoeak ziren gehienak eta orain, aldiz, 30 urtetatik gertuago dagoen jendea da.

Hori ongi dago, niri adin tarte hori gus-tatzen zait.

Kultura beharrezkoa dela esaten da orain behin eta berriz...

Nik uste dut kultura dena dela. Batzuetan kultura aipatzen denean gauza zehatz batzuei buruz ari gara eta modu elitista samarrean edo bestela, aldiz, kultura kontsumorako gai huts gisan hartzen da, kultura ia soilik telesailak eta musika balitz bezala.

“

Ongi dago euskaraz ez dakitenek zerbait galtzen ari direla sentitzea. Eztabaida hori ere hor dago”

Zerbait aldatuko da pandemiaren ondoren?

Ezer ez. Gehienez musukoa eramaten ohitu beharko dugula eta agian bi muxu ematearen ohitura galduko dela, hainbat hobe nire ustez. Harremanak egiteko modua agian. Gu oso mediterraneoak gara eta europarrago bilakatuko gara. Niretzat ongi dago hori. Pentsatzeko modua, kontsumismoa... horiek ez dira aldatuko. ●



Demokraziaren sustraietara



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Taktika ez da errenta, joko huts bihurtzen delako. Aldaketaren itxura hartutako antzerki hutsala. Ez da ezer aldatzen eta betikoek jarraitzen dute agintean betiko antzera. Zer egin, orduan? Demokraziaren sustraietara jo behar dugu ezinbestean.

Demokraziaren itxura hartutako sistema hauek mamu beldurgarriak sortzen dituzte egunero, izugarrikeriak. Baina espantuzko mamua guztien begi aurrean nabarmen gelditu arren, ez digute biderik eskaintzen aldaketarako: dela Borboien monarkiaren muturreko ustelkeria edo kartzela-politika kriminala; dela estatuko goi epaitegien eta polizia buruen bihurrikeria gaiztoa edo gobernu-alderdien zuzendaritzen saldukeria; dela pandemiaren garaiko gobernariaren gaitasun eza zein fedetarra edo krisi garaiko putre-saldoen harrapakaria krudela; hangoan Donald Trump bat, bestean Lesboseko Moria ilun ugariak.

Ez da auzokoei gertatzen zaien zer-bait, ez; etxe-etxekoa dugu arazoa. Kexu ziren oraintsu ezker abertzaleko bi estrategia ezagun, prentsa-artikulu mamitsuan, oraingo EAJ alderdiarekin ez dagoela zereginik; behin eta berriz saiatu arren beraiekin aliantzak egin eta akordioak adosten, beti atzera egiten dutela. Merezi du artikulu horretan eskaintzen diren argudio zenbait aztertu eta ondorioetara jotzea. Azaltzen da bertan Euskal Herrian badugula indar

“Hobe PSOE gobernuan PP baino”, “hobe aurrekontu espainiar hauek besteenak baino”, “hobe monarkia hau beste ezer baino”... eta azkenean politika zentrolean modu taktikoan jokatzeari lehenesten da, haren mugak onartuz

sozial eta politiko nahikorik, aliantza eta konpromisoak lotuz gero, askatasun nazionalen eta hobekuntza sozialean aurrerapauso sendoak emateko moduan, eta aipatzen dira erabakitze eskubidearen aldeko mugimendu sendoa, sindikalismo abertzalearen lidergoa, mugimendu feminista zabala, euskararen aldeko herri ekimenak eta ekologismoaren bultzada.

Hala ere, indar horiek guztiak elkar hartu eta estatu propio baten aldeko egiturak sustraitzeko ahalegina egin den guztietan, EAJ alderdiaren txandako zuzendaritzak beti egin duela atzeraka; hori arrazoitzeko Txiberta, Lizarra-Garazi eta Llotja de Mar-en izandako akordioen kasuak aipatzen dituzte. Horren

zergatia esplikatzeko orduan, artikulugileek uste dute EAJk bere hegemonia partikularra arriskuan ikusi eta nahiago izan duela beti bere alderdia eta “bere” kontsideratzen dituen instituzioa zein negozioa ondo lotu, horretarako estatu barruko autonomismoan mantenduz, nazio eraikuntzan eta burujabetzan aurrera egin baino.


Azterketak zuzena ematen du, baina agian sakondu ere egin daiteke eta kontuan hartu beste hau: EAJren bide horretan egiten dena, hain zuzen ere, taktikaren nagusitasun absolutua azpimarratzea dela: zer lor daitekeen gobernu edota alderdi espainiar honekin bestearekin baino gehiago; nola eman dezakegun pauso bat hau edo beste hori lortzeko, baina estatu horren zutabe nagusiak zalantzan jarri gabe, are zutabe horiei eusten lagunduz. “Hobe PSOE gobernuan PP baino”, “hobe aurrekontu espainiar hauek besteenak baino”, “hobe monarkia hau beste ezer baino”... eta azkenean politika zentrolean modu taktikoan jokatzeari lehenesten da, haren mugak onartuz.

Ez da hori, esate baterako, independentista katalan argienek hautatu duten bidea. Demokraziaren sustraietara jotzen dute arrazoi osoz, eta eskubide ukaezina dena, independentzia, lege bihurtzen saiatzen dira, estrategia adostuz. Agian geuk ere gehiago begiratu beharko genuke Kataluniara Madrilera baino. ●

Euskararen ahuldadeak



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

Pandemiak euskararen ahuldadeak agerian utzi ditu. Bigen Zupiriak *dixit*. Ezin ados egon, ordea. Euskararekin erakundeek dauzkaten ahuldadeak utzi ditu agerian. Euskarak, izatekotan, indarguneak dauzka: dena kontra izan arren, euskaldunok geure biziraupenean tematzen garela, batez ere.

Sasoi honetan, urgentziak, eta urgentzietarako, erdara. Ez omen da hainbestetarako. Luze aritu gintezke zer den hizkuntza eta zergatik bere garrantzia ez datzan mezuen komunikazio soilean.

Praktikan, itzulpen hizkuntza da euskara, euskaldunok itzulpenik beharko bagenu bezala. Zorionez, euskaldunok, gutxienez, erdara bat ere ondo menperatzen dugu. Eta zorionez diot, hizkuntzak jakitea bere horretan aberastasuna delako. Hau ez dakiten bakanak beste hizkuntzarik ez darabilten elebakarrak izaten dira. Halakoxea da ezjakintasuna.

Eta, bai, dena itzuli behar izatea neketua da. Ondo dakit nik hori. Lan mundurako ekoizten dudak guztia, esaterako, kostaka ekoiztu ostean, gazteleratu egin behar dudalako webguneratu ordurako. Eta benetan da neketsua. Baina hala izan beharko da maiz, harik eta gure herria, oso-osorik, euskalduna izan arte. Momentu hori heldu bitartean, ia dena erdaratu beharko da, erdaldunek uler

dezaten, eurak baitira itzulpen premia daukatenak.

Erakundeek jokabidea, ordea, oso bestelakoa da: erdaraz funtzionatu, funtzionatzeko modu posible bakarra hori bailitzan, eta gerora euskaratu. Eta helburu bakar batekin, gainera: euskaldunok kexa ez gaitezen.

Gure kexa ez da, edo ez litzateke izan beharko, itzulpena egiteko denborarik daukazuen ala ez, gure kexa da zuen egitura, zuen funtzionamoldea, erdaraz dela. Beste guztia horren ondorioa baino ez da.

Ez dugu itzulpenik nahi. Erakunde euskaldunak nahi ditugu. Batzarrak euskaraz egiten dituztenak, txostenak euskaraz idazten dituztenak, herritarrokin euskaraz komunikatzen direnak. Eta, esan bezala, euskarazko gaitasunik ez daukaten horiekin, hizkuntzaz jabetzen diren artean, erdara erabiltzeko kapazak direnak.

Arestian apuntatu dudanez, hizkuntzak komunikatzeko balio digu, baina ez da komunikazio tresna hutsa. Hizkuntza gu geu gara; lengoaiagatik gara izaki humano eta, izan, hizkuntzan gara.

Beste pare bat kontu honi lotuta. Esaterako, ezin dut ulertu zergatik darabilten hainbat sukaldari euskaldun petok interneteko presentzia erdara hutsean.

Euskara bezerook erakartzeko modua ere bada! Ala baten bat uxatuko ote duen beldurragatik ezkututzen da euskalduntasuna? Hala balitz, pentsatu agian ez duela merezi gorroto gaituen jenderik gure etxera ekartzea.

Edota salgaien kasuan. Ortuari zorrozkilo bat erosi nuen aurrekoan. Hementxe, herriko dendan. Eta, hara!, Bergarako enpresa batek egina. Enpresaren izena euskaraz. Eta horra arte. Trastearen kaxan bost erdara aukeran.

Produktu bat saltzen denean, lotura emozionalak jorratzen dira, erosleok produktu edo marka horrekin identifikatzea bilatzen da ezeren gainetik. Hau da Bernaysen sasoietatik propagandaren helburua eta kontsumismoaren arima: produktua geu gara, geure luzapena. Horregatik, besterik ez bada ere, enpresek ulertu beharko lukete eurentzat ere onuragarria dela geure hizkuntza aintzat hartzea. Euren markari balio erantsia emateko modua ere badela euskara.

Hori eta, gauzak inoiz txarrerera badoaz, seguruenik ez dutela Alemaniara joko laguntza eske. Gugana etorriko dira, Txinan baino, berton eros dezagun. Eta orduan, akaso, erantzuna izango da berdin antzera digula ze erdaratan erosten dugun. ●



INMA ERREA
IDAZLEA

Filmetan bezala

Hala deskribatu zigun izeba batek amerikarren bizitza, Amerikako Estatu Batuetan bisitan izan eta gero. “Pelikuletan bezala”, esan zuen, eta guk berehala konprenitu genuen zer esan nahi zuen. Izebak ez zuen bereziki maite zinema, baina bizimodu amerikar “estandarra” identifikatzeko behar beste telefilmak ikusiak zituen hara bidaiatu aitzin.

Aitak ez zituen maite fikzioak. Irakurle amorratua bazen ere, ez zuen eleberririk irakurtzen. Ergelkeriatzat jotzen zituen nobelak: gauza serioagoak-edo nahiago, hala nola dibulgazio zientifikoko liburuak eta telebista-emanaldiak –natur zientziei buruzkoak batik bat–, entziklopediak, Principe de Viana aldizkariaren euskarazko gehigarriak, bertso paperak... eta euskal kantak. Ohartu gabe segur aski kanta haietako istorioak –aitaren kutuna zen Markesaren alaba kasu– “asmatuak” zirela maiz, kontakizunak, fikzioa.

Aitaren antzera, beti esan izan dut nahiago ditudala fikzioaren sailean sartu ohi ez diren generoak: saiakera, poesia... Baina gero eta duda handiagoak ditut: gero eta lausoagoak iruditzen zaizkit fikzioaren eta fikziorik ezaren arteko mugak.

Jarraitzen dut gauza gutxi batzuk aukeratzeko errelato, film eta antzezlane-

tan, ez baitut gustuko den-dena, baina ohartuta nago fikzioaren muntaz: munda ulertzeko, istorioak behar ditugu pertsonok, eta pentsamendu abstraktuak ere aiseago bidaiatzen dira, bizkorrago iristen, istorio konkretuetan barrena.

Duela egun batzuk, TV3 telebista katalanean fikzioaren garrantziaz aritu ziren: finantziario-arazoak medio, desagertzeko zorian egon omen dira TV3eko fikzio-emanaldi “mitikoak”, Polònia umorezkoa barne. Azkenean, lortu dute fikziozko saioak “salbatzea”, komunitate batean sortutako fikzioan haren pentsaera eta balioak islatzen direlakoan, haren kezkek, ametsak, beldurrak eta desirak.

Telebistetan eta Interneten, fikziozko sailek boladan segitzen dute, inoiz baino indartsuago. Gureganaino segitzen dute iristen AEBetako fikzioek (gutxiagotan, bestelako tokietakoek...), eta haien bidez, hangoen ohiturek, ideiek eta balioek. Halakoak ez dira atertuko, gehienok –gazte zein heldu– haien amuari heltzen baitiogu. Baina ongi legoke geure fikzioak ere espazio handiagoa hartzea gure pantaila eta garunetan. Euskal fikzioa indartsuagoa izatea, eta gehiago mintzatzea euskaraz. Geure baitatik munduari eskaintzen ahal dioguna balioestea, garestia izanagatik ere. ●



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Ilarez

Nire bizitzan ikusi dudak ilararik handiena BBK Liveko lehendabiziko edizioan izan zen. Kao-tiko xamarra izan zen edizio hura eta akordatzeko naiz zain egon ginela toki guztietan, autoan, autobusa hartzeko, sartzeko, ogitartekoa eskatzeko... Ilaretan denbora gehiago izan ginen kontzertuetan baino. Ohitura galdua nuela idatzi behar nuen baina egiazki ez dut inoiz ohituarik hartu. Baina egoera berri —eta beharbada betiko, beharbada luzerako— honek ilarak osatzen jarri gaitu. Etxeko balkoitik ikusten dut PCR proba egitera osasun zentrora doaze-

na, autoan. Ez naiz gehiegi ausartzen begiratzera ezagunen bat ikusteko beldurrez. Oinez doazenak oharkabeago pasatzen dira pasako tokia baita hura, batik bat umeak ikastolara doazenean. Ikastolako umeak berdin. Ilaran jartzen dituzte lau aldiz bederen: sarterakoan, atsedenaldea hasterakoan, atsedenaldea bukatutakoan eta klaseak bukatutakoan. Deigarria egiten zait zeinen ordenatuak diren ilara guztiak. Okindegikoak zein fruta dendakoak. Kultur etxeak zein kaleko ikuskizunetakoak. Zeinen erraz onartzen ditugun jarraibideak eta arauak. ●

Etxebizitza: eskubidea edo pribilegioa?



HAIZEA NÚÑEZ
ABOKATUA

Bigarren Mundu Gerra ostean Mendebaldeko hainbat herrialdetan garatu zen ongizatearen estatuaren marko kontzeptualetik edan dute Euskal Herria zapaltzen duten Frantziako eta Espainiako estatuak “etxebizitza eskubidea” euren zuzenbide sisteman txer-tatzeko. Lehenengo kasuan, nahiz eta 1958ko konstituzioan idatzita ez topatu, jurisprudentzia konstituzionalaren arabera “pertsona guztiok etxebizitza bat erabiltzeko aukera estatuak lortu behar duen helburu konstituzionala da”. Aldiz, Espainiako Estatuko konstituzioaren 47. artikuluan hitzez-hitz aurki dezakegu: “Espainiar guztiek etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea dute. Botere publikoek beharrezkoak diren ingurua-barrak bultzatu eta bidezko arauak ezarriko dituzte, eskubide hori eragingarria izan dadin; eta, espekulazioa desager-rarazteko, interes orokorraren arabera arautuko dute lurraren erabilera. Era-kunde publikoen hirigintza-jarduerak gainbalioa sortzen badu, gizarteak ho-rietan parte hartuko du”.

Pertsona guztiok ez daukagu etxebizitza bat erabiltzeko aukerarik, denok behar dugun arren. Beraz, nortzuk gaude prest errealitate hau aldatzeko?

Hego Euskal Herrian, marko auto-nomikoa erabiliz, aurreko hamarkadan bi parlamentuek egindako “Etxebizitza legea” eta “Etxebizitza eskubidearen Lege Forala” indarrean daude hurrenez hurren. Bietan, etxebizitza eskubidea duen subjektua lurraldean errolatuta dagoena da. Hauxe da, legea eskuetan, gaur egun indarrez estatu egiturek defendatu beharreko etxebizitza eskubi-dearen esanahia.

Egunerokotasunean herritarrok ikus-ten dugun panoramak, ordea, etxebizitza eskubidea derogaturata dagoela erakusten

digu edo, are gehiago, haren aplikazioan pribilegio tankera duen eskubidea bera zalantzan jartzera eraman ahal gaitu. Etxebizitza eskubidea bada, zergatik epaileek bidaltzen dute Polizia jendea euren etxetik botatzera bestelako alter-natibarik eskaini gabe? Etxebizitza es-kubidea bada, zergatik onartzen da alo-kairuekin eta salerosketekin aberasteko negozioa egitea? Etxebizitza eskubidea bada, zergatik batzuek bizitza osoa ordaintzen egon behar dute eta beste batzuek, jaio diren familian jaio direlako, aukera dute etxe bat dohainik edo oso gutxi ordainduta erabiltzeko? Etxebizi-tza eskubidea bada, zergatik daude etxe-rik gabeko pertsonak eta pertsonarik gabeko etxeak?

Eskubidea ala pribilegioa den ezta-baidatzea intelektualki erakargarria izan arren, ez digu laguntzen arazoaren mui-nari heltzen: gaur egun pertsona guztiok ez daukagu etxebizitza bat erabiltzeko aukera, denok behar dugun arren. Beraz, nortzuk gaude prest errealitate hau aldatzeko? ●

2021a urteurren borobil ugarirekin dator: 500 urte Noingo batailak, 150 urte Parisko Komunak, 100 urte Sobietar Batasunak M8 emakumearen egun izendatu zuela, 25 urte Itoiz urtegiko kableak moztu zitutela edo Hondarribiko alardean emakumeak lehen aldiz atera zirela, 20 urte Al Qaeda AEBetako Dorre Bikien aurkakoko atenatuarekin mundua aho bete hortz utzi zuela.

Aurtengo formula baliatuz, **egunero efemeride bat** eskainiko dizugu datorren urtean ere, burujabeak garenez, historia guk ere idatz dezagun.

AZOKA.ARGIA.EUS

943 37 15 45



+4€ BIDLKETA GASTUAK



ARGIA EGUTEGIA

Eskuratu



KAZETARIEN MANIFESTUA

ARDURADUN POLITIKO EUSKALDUNAK BEHAR DITUGU

Pandemia garaian sarri gertatu da euskarazko hedabide publikoetan arduradun politikoen hitzak zuzenean gaztelaniaz eskaintzea. Herritarrek haserrea azalerazi dute. Argazkian, pandemia betean, ezinbestean, protagonismo handia hartu zuen Osasun sailburua, Nekane Murga. Orduko gobernu kontseiluan bost sailburuk ez zekiten euskaraz, tartean Osasun sailburuak.

ARGAZKIA: RAUL BOGAJO / FOKU

40 komunikabidetako 397 kazetarik bat egin dute euskaraz hitz egingo duen Eusko Jaurlaritza eskatzeko. Eskaera orain iristea ez da kasualitatea izan, Jaurlaritzaren osaera berriak eta COVID-19aren osasun larrialdiak inoiz baino ageriago utzi dute sailburu eta arduradun politiko euskaldunen gabezia.

Errepikatuko duzu, mesedez, azken zati hori euskaraz?. Ohiko esaldia izaten da euskal politikarien prentsurrekoetan. Gaztelaniaz mamia eta euskaraz laburpena; gaztelaniaz azalpenak eta euskaraz esaldi bakan irakurriak; sailburuak eta sailburuordeak euskaraz jakin ez, eta arduradunen eskalan dezente behera dagoenari elkarrizketa hedabideetan audientzia handiena dagoenean. Hauek eta gehiago dira euskaraz lan egiten duten kazetariak salatu dituzten desberdintasun egoerak.

38 urte igaro dira Eusko Legebiltzarak 1982an Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legea onartu zuenetik, baina oraindik bidea dago egiteko. Izan ere, 2016-2020 legealdian hamabi sailburutik bost ez ziren euskaraz aritzeko gai, gobernu berrian berriz hiru dira euskarazko gaitasunik ez dutenak. Hala ere, Eusko Jaurlaritzatik kanpora aldundi eta udaletan ere badira komunikabideekin euskaraz hitz egiteko modurik ez duten arduradun politikoak. “Arraroa da ia 40 urteren ondoren hau eskatzen ibili behar izatea, 25 urte daramatzat kazetari eta nazkatuta nago egoera honekin”, azaldu du Estitxu Ugarte *Arabako Alea* aldizkariko kazetariak.

Jon Alsak 30 urte daramatza EITBn eta hark ere bere azalean bizi izan ditu politikarien elebakartasunaren ondorioak. Uste du azkenean kazetariak ohitu egiten direla horrela lan egitera:

“2020an oraindik 1980ko aitzakiekin jarraitzen dute”. 1982an konpromiso bat hartu zen eta orain aurrera eramateko ordua dela dio: “Manifestuak ordezkari duinak aipatzen ditu eta uste dut duintasun hori erakutsi behar dela hartzen dituzten konpromisoak betetzen”. Maider Galardi *Berria*-ko kazetariak Idoia Mendia PSE-EEko lehendakari gaiaren hitzak ekarri ditu gogora: “Mendiak esan zuen gobernu osatzerakoan gobernu akordioa egikaritu ahal izateko ahalik eta hautagai egokienak hautatuko zituztela, eta uste dut egokitasun horretan hizkuntza ere kontuan hartzekoa dela”.

Politikariek euskaraz ez hitz egiteak kazetariengan sortzen duen zamaz mintzatu da Galardi: “Itzulpen lanak egin behar izaten ditugu eta informazioaren xehetasunak eta ñabardurak galdu egin daitezke, horrek desoreka handia sortzen du”. Gaineratu du beste batzuetan euskaraz jasotzen duten informazioa gaztelaniazkoaren “laburpenaren laburpena” izaten dela, edo urgentzia handiko kontuetan informazioa lehenengo gaztelaniaz bidaltzen dutela, eta hiru ordura iristen dela euskarazkoa: “Gerta daiteke euskarazko informazioaren kalitate txarra ikusita, gazte-

laniazkoa erabili behar izatea ere”. Ildo beretik hitz egin du Ugartek: “Gu ez gara itzultzaileak, kazetariak gara”.

Aurrerapausoak egin direla diote hiruek, baina egiteko ere asko geratzen dela nabarmendu du Alsak: “Tristeia da hiru edo lau legealdi daramatzaten politikariek euskaraz ulertu ere egiten ez dutelako Eusko Legebiltzarrean aurikullarrak erabili behar izatea”. Dena den, egoera okerragoa ere izan dela nabarmendu du: “Gogoan dut Martxelo Otamendik esaten zuela garai batean euskaraz zekien hiriburu bateko

alkate bakarra geneukala,

Boiseko alkatea”. Galar-

di ere egoerak hobera egin duelakoan dago.

EAEko azken hauteskunde jarrai-

pena egiten aritu da *Berria*-ko Euskal

Herria sailean eta aurtengoan lehenda-

karigaiekin euskaraz aritzeko modua izan

du. Bestalde, gaineratu du hauteskunde garaian alder-

dietako prentsa arduradunekin

komunikazioa euskaraz egiteko aukera eduki duela, eta berri ona dela hori,

nahiz eta “ohikoa” izan behar lukeen. Alsa ere mintzatu da komunikazio ardu-

radunetz: “Ez dira politikariak bakarrik, batzuetan alderdietara edo erakunde

publikoetara deitzen duzu eta komuni-

**“Guk lan
bikoitza egin behar
izaten dugu, eta hori ez
dagokigu guri, erakunde
publikoetatik informazioa
euskaraz jasotzeko
eskubidea dugu”**

Estitxu Ugarte

Alea aldizkariko
kazetaria



Gobernu kontseilu berria. Hiru sailburuk ez dakite euskaraz.

kazio arduradunak ere ez daki euskaraz. Nola da posible?”

Ugarte mende laurden darama Araban kazetaritza euskaraz egiten eta al daketa “sekulakoa” izan dela dio: “Lanean hasi nintzenean euskaraz ia ez zen prentsa oharrik bidaltzen, eta, gainera, ez zen beharrezkotzat hartzen”. Pare bat kazetari bakarrik aritzen ziren euskaraz eta normalizat hartzen zuten itzulpenak egitea. Gaur egun arabar gizartearen hizkuntza erabilera asko aldatu dela dio, eta gero eta gehiago direla euskaraz bizi direnak, beraz, ezinbestean sortu dituela horrek aldaketak: “Orain Foru Aldundia- ren eta Gasteizko Udalaren pentsa ohar- rak elebidunak izaten dira”. Dena den, ahozko komunikazioan aurrerapausoak urriagoak izan direla dio: “Gaur egun hankamotz ibiltzen dira, diputatu nagusiari euskaraz elkarrizketa egiteko, esaterako, gaizki”. Gaineratu du duela 20 urte planteatu ezin ziren aldaketak gau- zagarriak direla orain.

SAILBURU ERDALDUNAK

**Gobernu kontseilu aukeratu
berrian hiruk ez dute euskaraz
moldatzeko gaitasunik:**

Beatriz Artolazabal
Berdintasuna, Justizia eta
Gizarte Politikak.

Javier Hurtado
Turismoa, Komertzioa eta
Kontsumoa.

Iñaki Arriola
Lurralde Plangintza,
Etxebizitza eta Garraioa.

**2016-2020 legealdiko
gobernuan bost ziren euskaraz
ez zekitenak:**

María Jesús San José
Lana eta Justizia.
Estefanía Beltrán de Heredia
Segurtasuna.

Nekane Murga
Osasun Saila. Aurretik Jon
Darpon, hura ere erdalduna.
Beatriz Artolazabal
Enplegua eta Gizarte Politikak.

Sonia Pérez
Turismoa, Merkataritza eta
Kontsumo Saila. Aurretik Alfredo
Retortillo, hura ere erdalduna.

ESKUBIDEEZ HITZ EGIN NAHI DUTE

Eskubideez hitz egiten du manifestuak, baita elkarrizketatutako kazetariak ere, kazetarien eta informazio hartzaileen eskubideez hain zuzen ere. Hala dio Galardik: “Iruditzen zaigu eskubidez dagokigula euskaraz gure lana ondo egin ahal izateko informazioa ere lehen eskutik euskaraz jasotzea, guri interpretatzea dagokigula-ko, ez itzultzea”. Ugarte ere bat dator horretan: “Guk lan bikoitza egin behar izaten dugu, eta hori ez dagoki- gu guri, erakunde publikoetatik in- formazioa euska- raz jasotzeko esku- bidea dugu”.

Desoreka egoera aipatzen dute behin eta berriz elkarrizke- tatuek: “Guk euskaraz lan egin arren gaztelania ere men- peratzen dugu, baina horrek ez du ara- zoa konpontzen”. Galardik azpimarratu du gaztelaniaz aritzen diren kazetariak “modu erraz eta naturalagoan” hitz egi- teko aukera izaten dutela unean uneko sailburuarekin: “Guk berriz hiru aldiz pentsatu behar dugu prentsaurreko batean galdetu aurretik edo euskaraz pentsatuta ekarri dugun galdera gaz- telaniara itzuli behar dugu”. *Berria*-ko

kazetariak dio euskarazko kazetariak gaztelania menperatzen duten arren, sarri bigarren mailan uzten dituela sail- buruak euskaraz ez hitz egiteak: “Legez euskara bermatuta eduki beharko lu- kete erakunde publikoek, gure orde- kari nagusiekin gure jarduna ahalik eta modu profesionalean egiteko, oztopo hori ez zait bidezkoa iruditzen”.

Eskubideez eta desorekez hitz egiten dute euskaraz lan egi- ten duten kazetariak, bai- na polemika ere ekarri

**“Triste da
hiru edo lau legealdi
daramatzaten politikariak
euskaraz ulertu ere
egiten ez dutelako Eusko
Legebiltzarrean aurikularrak
erabili behar izatea”**

Jon Alsa
EITB-ko kazetaria

du manifestuak, izan ere, badago sailbu- ruak euskaraz hitz egin dezaten eska- tzea “diskrimina- tzaitzat” hartzen duenik ere. Alsak ez dio garrantzi handiegirik eman nahi gaiari: “Beti dira berdinak, mediku ona izatea euskalduna izatea baino nahiago dutela dioten bezala”. Azpimarratu du gauza batek ez duela bestea kentzen eta ez duela uler- tzen zergatik tematzen diren horrekin: “30 urte daramatzate aitzakia berberak jartzen”. Hala ere, Alsak optimistatzat du bere burua: “Uste dut eztabaida hori gizartean gaindituta dagoela”. Galar- di eta Ugarte ere itxaropentsu daude aurrera begira: “Esperantza da azkena galtzen dena, ezta?”.



JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

KAZETARIEN MANIFESTUA. Iraila hasieran aurkeztu zuten 400 kazetari inguruk sinatutako manifestua. Maite Artola Euskadi Irratiko kazetariak eta Martxelo Otamendi *Berria*-ko zuzendariak irakurri zuten.

ONDO EDO GAIZKI, BAINA GALIZIERAZ

Galiziako politikariek ere galizieraz hitz egiten dute prentsarekin. Maria Obelleiro *Nos* diarioko zuzendariak azpimarratu du azken urteetan erabilerak asko egin duela gora, normalizazio linguistikoaren legeak eta botere publikoa galizieraz hitz egitera bultzatzen duen legedia tarteko. Bat dator David Lombao, *Praza Pública*-ko zuzendaria, nahiz eta, uste duen hizkuntzaren kalitatea ez dela bermatzen: “Galiziako Xuntako presidentek [Alberto Núñez Feijóo], esaterako, oso maila baxua dauka”. Hori ere hizkuntza gutxies-teko modu bat delakoan dago: “Ez dute batere zaintzen, berdin zaie nola hitz egin”. Lombaok nabarmendu du idatziz egoera ez dela hobia: “Galizieraz bidaltzen dizkiguten prentsa oharretan hanka-sartze handiak egiten dituzte”. Akats berberak gaztelaniaz eginda biralak bihurtuko lirakeela dio. Hizkuntza ez zaintze horrek, akatsak normalizatzeraz eraman ditu, “gutxienez galizieraz egin du” aitzakiapean.

Kazetari jarduna, arduradun politikoekin behinik behin, guztia galizieraz egiteko aukera dutela diote Lombao eta Obelleirok: “Arduradun politikoak legez daude behartuak galiziera ezagutu eta galizieraz komunikatzera, baina hori ez da gertatzen arlo guztietan”. Lombaok, nabarmendu du berak arlo politikoan eta sozialean egiten duela lan gehienbat eta hor dena edo ia dena galizieraz egiteko aukera duela, “hala ere, kultura arloan lan egiten duenari galdetzen badiozu, ziur haren erantzuna oso ezberdina dela”.

BESTELAKO EGOERA KATALUNIAN

Katalana indartsuago dago eta kazetaritza egiteko orduan ere nabari dute. Beraien jardun guztia katalanez egiteko aukera izaten dute: “Informazioa jaso eta eman”. Rafa Garrido Kataluniako Albiste Agentziako politika saileko arduraduna eta Col·lectiu Ciutadella parlamentuko kazetarien elkarteko zuzendaria da. Oriol March, berriz, *Nació Digital*-eko politika saileko arduraduna eta *Ara* egunkariako sortzaileetako bat. Katalanez egiten dute lan biek eta haien egunerokoak ez du euskaraz lan egiten duten kazetariekin zerikusirik.

Oro har politikariek prentsaurreko eta interbentzio guztiak katalanez egiten dituztela dio Garridok. Aldiz, Kataluniako egoera politikoak Espainiako Estatuko komunikabideen presentzia asko areagotu duela nabarmendu du, eta gaur egun ohikoa da prentsaurrekoen amaieran adierazpen batzuk gaztelaniaz errepikatze eskatzea. Dena den, prentsaurrekoak ez dira ia inoiz elebidunak izaten: “Katalanez izaten dira osorik. Lehenengo politikariak esan beharrekoak esaten ditu katalanez, ondoren kazetariak katalanez galdetzen dute eta hark erantzun, eta behin guzti hori bukatuta norbaitek zerbait gaztelaniaz errepikatzea behar badu, orduan eskatzen du”.

Ia alderdi guztiek funtzionatzen dute horrela, baina Ciudadanosen agerpenak aldaketak ekarri dituela dio: “Gaztelaniaren bandera eskuetan hartuta iritsi ziren erakunde publikoetara eta nabari da. Prentsaurreko batzuetan zuzenean gaztelaniaz hitz egiten dute, nahiz eta Inés Arrimadasek, esaterako, badakien katalanez”. Alderdi Popularrak, aldiz, orain arte katalanez arazorik gabe hitz egin badu ere, orain, batzuetan prentsaurrekoak gaztelaniaz egiten hasi direla dio Marchek, batez ere Estatuko ka-teetan azaldu nahi dutenean. Ez da hori PSCren kasua: “PSCekoek beti babestu izan dute hizkuntzaren normalizazioa

eta prentsaurrekoak beti egiten dituzte katalanez”.

Antzeko zerbait gertatzen da prentsa oharrekin ere. “Prentsa ohar guztiak katalan hutsean bidaltzen dituzte, Ciudadanos izan ezik, hauek beti bidaltzen dituzte ohar guztiak elebitan”. Une batzuetan barregarri geratzen dela dio Garridok: “Deialdiak ere bi hizkuntzatan bidaltzen dituzte, eta katalanaren eta gaztelaniaren antzekotasunak kon-tuan hartuta, zentzugabea da”. PPK ere inoiz gaztelania hutsean bidaltzen dituela gaineratu du Marchek, baina ez da ohikoena izaten.

Dena den, azken urteetan aurrera ordez atzera egin dutelakoan dago March, ez bakarrik komunikabideekin dituzten harremanetan, baita parlamentuan ere: “Duela hamar urte baino gaztelania gehiago entzuten da, Ciudadanos eta PPK gero eta gehiago erabiltzen dute eta pentsatzen dut Voxek ere hala egingo duela”.

Hala ere, Olatz Simonen ustez ez dago Euskal Herriko errealtatearekin alderatzerik. Bost urtez aritu da Katalunian EITBko korrespontsal eta hasieran harritu egin zuen hango funtzionamen-duak: “Han jende guztiak onartzen du dena katalanez izango dela, eta gaztelaniazko adierazpenak lortzeko bukaera-ra arte egon behar dela zain”. Batzuetan, irratiko kazetariarentzat, esaterako, zaila izan daitekeela dio: “Azkar behar dituzu gaztelera azko adierazpenak eta agian 40 minutuko prentsaurrekoa entzun behar duzu hitz batzuk lortzeko”. Simonen uste du Katalunian kazetari lane-tan aritzeko ezinbestekoa ez baina “oso garrantzitsua” dela katalanez jakitea: “Prentsarekin harremana %98an katalan hutsean egiten dute”.

Horrek ahalbidetzen die Garrido eta Marchi beren jarduna osotasunean katalanez egitea: “Ciudadanos eta PPKo bozeramaile gehienek ere badakite katalanez eta elkarrizketetan, normalean, ez dute arazorik izaten hala egiteko”. ●

BABESLETTZA:



Lezoko
Unibertsitateko
Udala

Eskaini euskara
lehen hitza euskaraz!

ARGIA 1919 · 2020

Euskarazko *hedabide lerratuak,* hazten eta txikitzen aldi berean

Euskarazko komunikazioa 2020ko hamarkadan, horixe izan zen EHUKo Udako Ikastaroetan irailaren 14an eta 15ean Donostian landu zen gaia. Euskal Hedabideen Behatokiak antolatu zuen gogoeta, Hekimen herri ekimeneko hedabideen elkarte eta EHUKo Nor ikerketa taldearekin batera diseinatua. Jaurlaritzako Kultura sailburu Bingen Zupiriak bertan jaurti zituen hitzek zeresanik eman dute: “Komunikazioa euskaraz egiten duten hedabideak oso lerratuak daude posizio politiko-ideologiko batzuetara”.

 XABIER LETONA BITERI

Sasoiotan ohikoa bihurtzen ari den moduan, saretik egin nuen jarraipena. Egun oso bateko irakurketarik egitea gaitza da, baina entzundako ideietatik irakurketa orokorrik egin beharko banu honakoa litzateke: Euskarazko hedabideek azken lau hamarkadetan asko aurreratu dute, arrazoi ugariengatik, besteak beste bere garaian aro digitalari heldu ziotelako. Askok hazi dira, beraz, baina gure inguruko beste hizkuntzak ere bai, euskarazkoak baino gehiago gainera, eta beraz, ezinbestean lortu behar dugu azken hamarkadetan euskarara ekarritako euskaldun berriak gureganatzea, bereziki ikus-entzunezkoen esparruan, hori baita egungo gazteek gehien kontsumitzen dutena eta etorkizunean ere gehien kontsumituko dena.

Ez da makala laburpena, arriskutsuegia agian, baina horrekin geratuko nintzateke. Gero, hizlari bakoitzak euskarazko hedabideak indartzeko bere ikuspegia eskaini zuen. Goizeko azken ekitaldian elkartu ziren solasean sailburu eta bozeramaile berri Bingen Zupiria eta Mikel Irizar Goiena-ko sortzaileetakoa, egun erretiroa hartuta dagoena.

Mikel Irizarrek aurrera egiteko sistema bat adostu beharraz hitz egin zuen, gogoeta estrategikoan oinarritzako akordioetara iritsi beharraz, eta etorkizun horretan tokiko hedabideek izan behar duten garrantziaz. Tokiko hedabideen eta nazio mailako arteko informazioa elkar trukatu beharra ere aipatu zuen, eta horretarako sarri erabili izan duen igo-gailuen irudia erabili zuen, non informazioa tokikoen eta nazio mailako artean gora eta behera ibiliko litzatekeen. Euskal

instituzioen eta euskal hedabideen arteko elkarlanerako garai ona bizi dugula iritziz, eta horren adibide gisa jarri zuen 2018an diru-laguntzen bueltan lortutako akordioa.

Bingen Zupiria ezkorrago agertu zen egoeraz eta gogoeta ugari egiteko gonbitea egin zuen, baina gonbitea, edo hori iruditu zitzaidan niri behintzat, batez ere euskarazko hedabideei egin zien. Aurretik mundua existituko ez balitz moduan –dramatizazioa da–, berehala jarri zen COVID-19ko garaia begira, honek dena aldatuko duela azpimarratuz. Sasoi honetan, mundu zaharra eta berria bereizi zituen, horien muga digitalizazioan jarritz.

Etxealdian egungo garaia nola bizi zuen aipatu zuen: banaketaren mundua, liburutegi digitala, Netflix, gertuko informazioaren audientzia arrakasta... hori guztia mundu berria da bere aburuz.



GORKA RUBIO / FOKU

TEKNOLOGIA ETA HEDABIDEAK. Josu Azpillagak (Elhuyar), Lorea Arakistainek (Puntu.eus) eta Josu Astibiak (CodeSyntax) parte hartu zuten mahai-inguruan, Leire Palaciosen gidaritzapean.

Egunkariak, telebista (batez ere aparailu klasikoaren aurrean jarri eta entzutea)... funtsean, gure komunikazio sistema mundu zaharraz hornitzen dela esan zuen eta gazteak ez daudela mundu horren truke ordaintzeko. “*ETB, Berria, Deia...* mundu berria egiteko lantokiak izan daitezke. Baina orduan, nola finantzatu hori guztia?”. Ekonomikoki ere garai oso estuak datozela gogoraziz, horretaz guztiaz gogoeta egin beharra aipatu zuen. Eusko Legebiltzarra jo zuen gogoeta horretarako esparru egokitizat.

Eguneko harri-bitxia bere hitzaldiaren amaierarako utzi zuen eta, presaka zebilen ez eta Bilbora alde egin behar zuenez, ez zen horretaz hitz egiteko aukerarik egon. Pena. Edozein modutan, badirudi astelehen hartan mezu hori argi bota nahi zuela, dagokionak ondo apunta dezan. Hemen esandakoa:

“Komunikazioa euskaraz egiten duten hedabideak oso lerratuak daude posizio politiko-ideologiko batzuetara eta hori oso deserosoa izan daiteke. Ez dakit hain identifikazio nabarmenak izatea, eta

halako deserosotasunak eta zailtasunak sortzea, lagungarria den euskarazko produktuen kontsumorako.

Zupiriak ez zuen dena zehaztu: zeintzuk dira euskarazko komunikazioko hedabide lerratuak? handiena den ETB1 ere bai? Edo Euskadi Irratia? Tokikoko unibertsokoak?

Pentsa dezakegu euskal hiztun garen guztiok naturaltasunez hartzen ditugula euskaraz sortzen diren eduki horietako

asko, baina, benetan diotsuet, barru-barrutik, ez da horrela. Etenaren arriskua ikusten dut euskal hiztun gaituak diren pertsonen artean. Horrek kezkatzen nau.

Niri Jaurilaritzatik bizitzea tokatu zait otsailaren 5etik hasi –Zaldibarrekin gertatua– eta gero pandemiaren garai honetan ikusi dudana oldartze handia, eta uste dut horretan protagonismo handia izan dutela euskarazko eduki komunikatiboek. Eta, zinez, horrek deserosotasun handiak sortu ditu”.

Hor bukatu ziren sailburuaren hitzak. Lehendik ere instituzioetatik sarri aipatu izan da euskarazko hedabideak lerratu egia direla politikaren esparru jakinetara eta mundu hori aspalditik jarraitzen duenak zer esan nahi duen interpreta dezake agian, baina galdera ikur ugari airean geratu dira. Zeintzuk dira euskarazko komunikazioko hedabide lerratuak? Handiena den ETB1 ere bai? Edo Euskadi Irratia? Tokikoko unibertsokoak? Deseroso zergatik? Nahi badu behinik-behin, izango du hauek eta beste asko argitzeko aukerarik.



JAIZKI FONTANEDA / FOKU

BINGEN ZUPIRIA. “Komunikazioa euskaraz egiten duten hedabideak oso lerratuak daude posizio politiko-ideologiko batzuetara eta hori oso deserosoa izan daiteke”.

ERDARAZKO MEDIOAK BUELTAN DATOZ

Irizar eta Zupiriaren aurretik hiru uni-bertsitari aritu ziren goizez: EHUKo Nor ikerketa taldeko Josu Amezaga eta Behategiko koordinatzaile Libe Mimenza, batetik, eta bestetik, Enric Marin Otto, Barzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea. Eta arratsaldean Hekimen eta teknologiari buruzko mahai-inguruen txanda izan zen.

Idea eta datu gehiegi atera ziren ondorengo lerroetan dena jasotzeko moduan eta, beraz, nik haien ideietako batzuk azpimarratuko ditut, nik emandako garrantziaren arabera, baina agian, edo seguruenik, aurkezpenen egileek nabarmentzeko izan dezaketen interesarekin zerikusirik ez duena.

Amezagak egin zuen jausi lehenik oholtzara eta euskarazko komunikazioan azken lau hamarkadako lorpenak bildu zituen. Horien artean pilatutako esperientzia handia azpimarratu zuen: 1980an euskarazko lau aldizkari besterik ez ziren eta 2020an dozenaka medio,

euskarri guztietakoak. Audientzia igoe-ra oso handia izan dela garbi utzi zuen, baina gaztelaniazkoak askoz gehiago hazi direla azpimarratu zuen segidan eta, ondorioz, euskararen esparru komunikatiboa murriztuz doala nabarmendu zuen.

Euskararen garapenean ohikoa den dilemari ere heldu zion: Trinkotu ala zabaldu? Euskarazko hedabideen kontsumoa asko hazi bada ere, azken lau hamarkadetan euskal gizartean euskaldundu direnak askoz gehiago izan direla aipatu zuen, eta ez dugula lortu horiek erakartzea. Hamarkada honetako erronka nagusia, beraz, horixe litzateke, horiek euskarazko komunikaziora ekartzea. Bide horretan, orain arte EAEk inoiz izan ez duen komunikazio plan orokorra egitea ezinbestekoa dela aipatu zuen, horren baitan kokatuz euskarazko komunikazio plana. Aldi berean, hamarkadari behar bezala heltzeko, aurrerantzean hezkuntza, hizkuntza eta komunikazio politikak elkarrekin joan beharko dutela ere zehaztu zuen.

Esparru zehatzagoetara ere jo zuen: adibidez erdarazko hedabideak. Bere us-tez, horietan ere egiten da euskarazko komunikazioa, ahaztua izan den esparru bat da eta komeniko litzateke gehiago kontuan hartzea, horrela, Katalunian El Periódico eta La Vanguardia-rekin gertatu den bezala –gaztelania eta katalaneko bertsioak dituzte hauek–, hemen ere gaztelaniazko prentsa euskalduntzeko.

Aspaldikoa da gaia, eztabaida handiak piztu dituen eta orain osteria ere garrantzia hartu duela dirudi. 2018ko Rikardo Arregi Sarietan Bingen Zupiria sailburuak ere prentsa elebidunaren esparruan jarri zuen arreta, hauetan euskararen presentzia indartzeko egin beharreko lana azpimarratuz. Oraingo ikastaro hauetan ere gaiak izan du leku esanguratsua, asteartean gaztelaniazko hedabideen mahai-ingurua egin baitzen Gara, El Diario Vasco eta Noticias de Gipuzkoa-ko arduradunekin.

Azken lau hamarkadetan gatazka giroak euskarazko hedabideen garapenean eta elkarlanean eragin handia izan dutela



CATALUNYA PLURAL

HAURRAK ETA GAZTEAK. Marinen ustez, hauek lotzen dutena bizitzarekin, sozializazioa eta abentura, gaztelaniaz eta ingelesez bizi dituzte. Orain arteko bidean giltzarritzat jo zuen TV3 eta etorkizunera begira ere bai.

esan zuen Amezagak, baina egungo giroa oso bestelakoa dela, eta hori ere aldeko duela euskarazko komunikazioak. Horren erakusgarri, Amezagak ere egin zion erreferentzia finantzazioan instituzio eta euskarazko hedabideen artean izandako azken akordioari.

Libe Mimenzak ohore egin zion Behategiko koordinatzaile izateari eta datu zaparrada handia utzi zuen bere hitzaldian: Euskara hutsezko komunikabideen kartografia. Behategiaren sorreraren berri eman zuen eta erakundeak egindako ibilbidea aletu. Orain arte landutako hainbat ikerketa ere azaldu zituen, esate baterako Hekimen Analytics nola sortu zuten edo pandemiaren garaian euskal hedabideek izandako hazkunde handia, hau ere hedabide guztiek izandako hazkunde digitalaren testuinguruan kokatua. Aipatu datuak eta gehiago kontsultatu nahi dituenak, Behategian du horretarako aukera.

KATALANA ESTU: IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA 5G

Enric Marín Otto irakaslea katalanaren egoeraren alarma gorrien berri ematera etorri zen. Bere hitzaldiaren titulua honakoa: Broadcastetik Broadband-era, ikus-entzunezkoen sistema berria, hizkuntza, kultura eta burujabetza. Ikus-entzunezkoen industrian oinarritu zen erabat, eta ezinbestean hartu beharreko bi tren erraldoi aipatu zituen: OTT edo *Over The Top* direnak (Netflix, Google, Ama-

zon...) eta datorren 5G iraultza teknologiko berria.

40 urte atzera egin zuen, Kataluniako autonomia estatutuaren sasoiara, eta argi utzi zuen: “Ekonomia ez genuen ondo negoziatu, baina kultura eta hizkuntza bai”. Horren ondorioz, “azken 40 urteetan hizkuntzaren berreskurapen prozesua nahiko arrakastatsua izan da, eta hizkuntza eta TV3 giltzarri izan dira”. Hiru fase bereizi zituen: bat, 1980-2000, berreskuratze prozesu argia eman zen; bi, 2000-2010, geldialdia; eta hiru, 2010-2020, apurkakako atzerakada.

Josu Amezagaren
ustez, erdarazko
hedabideetan ere
egiten da euskarazko
komunikazioa eta,
bere ustez, komeniko
litzateke hori gehiago
kontuan hartzea

Zein alorretan egin da atzera, Marínen ustez? Umeen eta gazteen artean batez ere. Hauek OTT-en eremuan berehala murgiltzen dira, neurri batean hor bizi

dira eta horiek, Katalunian, batez ere ingelesez eta gaztelaniaz dira: “Beraz, bizitzarekin lotzen dutena, sozializazioa eta abentura, ingelesez edo gaztelaniaz bizi dituzte”. Katalana –eta gainerako hizkuntza txikiak– tren hori galtzen ari da, eta ezinbestean heldu behar zaio gaiari. Bestela jai dago. Dramatismo horrekin mintzatu zen.

Independentista moduan agertu zen argi eta garbi, baina iragan hamarkadari begira ondoko paradoxa aipatu zuen: “Esparru politikoa espazio handiak irabazi ditugunean, hizkuntzarenean galdu egin ditugu”. Denbora honetan guztian, Kataluniara migratzaile asko joan direla azaldu zuen, “eta ez ditugu katalanerako irabazi, zergatik? Kaleko eta ikus-entzunezkoen hizkuntza hegemonikoa gaztelania delako”.

Ez da lekurik hemen bere hitzaldi mamitsua osorik jasotzeko, baina 5G-ari buruz esandakoak behintzat aipatuko ditugu: “Hau ez da aldaketa bat gehiago, analogikotik digitalerako aldaketarekin aro aldaketa bizitzen ari gara eta duela 40 urteko politikak ez dute egungorako balio, berriak egin behar dira”.

Teknologia burujabetzari aipamen eginez, azaldu zuen nola Espainiako Estatuak irabazi dituen apurka komunikazio espazioak: “1984an telebistaren erdia gaztelaniaz zen eta beste erdia katalanez, eta estatua beldurtu egin zen. Felipe Gonzalezek hiru kate gehiagori zabaldu zien bidea eta hala etorri ziren Antena3, Tele5



GORKA RUBIO / FOKU

HEDABIDEEN FINANTZAZIOA. 2019ko otsailean EAEko erakunde nagusiek eta Hekimenek iragarri zuten hiru urterako finantzazio ekordio egokia lortu zutela. Alde biek urrats oso garrantzitsutzat jo zuten hitzarmena.

eta Canal Plus. Horrekin automatikoki jaitzi ginen %50etik %25era. Eta ondoren Zapateroren garaia etorri zen Lurreko Telebista Digitalarekin. Jarraitzen dugu txikitzen, guk hiru kate eta haiek hogeitamar pasa”.

Gero 2008ko krisi garaiko murrizketak etorri ziren –jarraitzen zuen azaltzen Marínek–, Artur Masen garaiko murrizketei egurra emanez: “Telebista publikoan %33ko murrizketak egin ziren!”. Berehala zuntz optikoaren etorrera: 200 telebista kate etxean eta horietatik %3 besterik ez katalanez, audientziaren %15. “Eta gero Espainiatik esaten dute TV3k egiten dituela independentistak, medio gehienak euren eskuetan direnean”. Baina hainbat gaitan errepikatu zuen gisan, “hori beste kapitulu baterako da”.

Apurka egindako atzerakada horren guztiaren ondoren, orain 5Ga dator, 2025erako European nahiko zabaldua egongo dena –“ordurako mugikor guztiek izango dute 5G”– eta gudu geopolitiko-estrategikoa dakarrena. Azaldu zue-nez, estatua ondo arduratu da hamarkada hauetan esparru elektro-magnetikoari eusten, autonomiak eskumenik gabe utzita. Aurrera egiteko, ezinbestekoa jo zuen alor hori borrokatzea, bai estatuan eta baita Europar Batasunean ere... eta elkarrekin: “Estatuan, euskaldunak eta katalanak batera; eta European eskoziarrek, daniarrek eta beste hizkuntza txikiago batzuekin, izan hauek estatua edo ez”.

Hamar urratsetan sakon finkatu zituen hartu beharreko neurriak, Katalu-

niako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak landu dituenak, eta baliatu zuen aipatzeko euskaldunoi ere ondo letorkigukeela ikus-entzunezkoen kontseilua. Eta honekin guztiarekin konektatua, procès-ak une korapilatsu honetan bizi duen unea-ri buruzko bere iritzia ere ausart jaurti zuen: “Orain urrats bat egin behar dugu atzera hizkuntza eta kultura berreskuratzeko, eta ondoren helduko diogu hegemonia politikoari”.

EUSKARAZ SORTZEAREN GARRANTZIA

Arratsaldeko saioan parte hartu zuen Igor Astibia Hekimeneko zuzendariak, Hekimen, euskal hedabideen sektorearen gogoeta hitzaldiarekin. Azaldu zue-nez, euskarazko hedabideen plan estrategikoa prestatzen ari dira. COVID-19ko itxialdiaren aurretik ekin zitzaion zereginari eta itxialdiak bertan behera utzi zuen lana. Etxeratzearen aurretik Bartzelonan izan zen elkarte hango adituen esperientziak ezagutzeko eta han jasotako ideien berri eman zuen Astibia bere hitzaldian. Eduki kudeatzaileak, elkarlana, inbertsioak, 5Ga, itzultzaile automatikoa, formakuntza, ikus-entzunezkoak indartu beharra eta albiste agentzia ekarri zituen aretora.

Eguna bukatzeko, esparru digitalari buruzko mahai-ingurua egin zen: Komunikazioa eremu digitalean: daukaguna eta datorrena, Puntu Eus-eko Lorea Arakistainek, CodeSyntax-eko Josu Azpillagak eta Elhuyarreko Josu Aztiriak, Leire Palaciosok gidatuta. Dena azaltzea luze

joko luke, baina merezi du aipatzea mahai-gainean geratu ziren ideia pare bat. Bat, “borroka ez da bakarrik teknologikoa”, ahalmen aldetik euskara handien mailan dago, baina ordenagailu eta mugikorren interfazeen adibidea jarri zen: euskaraz daude horietako erabilienak, baina guxtiengoak jartzen ditu bere aparailuetan. Hori ez da arazo teknologiko bat. Bi, gero eta gehiago kontsumitzen da euskaraz, eta edukien %80 mugikorretatik jasotzen da, ez hedabideen nabigatzaileetatik. Asko aipatzen da automatismoak eta itzulpengintzak ekarri dezaketen aurrerakada eta bai, onartu zen asko aurreratu dela, esate baterako itzultzaile neuronalarekin; baina azpimarratu zen teknologian aurrera egiteko gero eta euskarazko eduki gehiago behar dela, eta gainera, propio euskaraz sortutako edukiak, horrek duela garrantzia, eta horretarako inbertsioak beharko direla. ●



**EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA**

aholku@aholku.eus · 943 005 680
aholku.eus



Senti da trantsizio ekologiko eta energetikoaren aldeko nahikari handia elkargoaren partetik”

BRUNO CARRERE

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOKO PRESIDENTEORDEA

Uztaritzeko auzapeza da Bruno Carrere, abertzaleez ere osaturiko Uztaritze Bai zerrendakoa. Euskal Hirigune Elkargoaren batzorde eragilean presidenteorde da, “lurraldearen antolaketa iraunkorraren” kargua betetzeko izendaturik. Ardura potoloa du esku artean, Ipar Euskal Herria bere osotasunean hartuz, Larrañeko mendi-mazeletatik hasita Hendaiaiko kostara arte, erronka guztiak kontuan hartuko dituzten politikak marrazteko konpromisoa harturik duelako elkargoak.

 **JENOFA BERHOKOIRIGOIN**

Elkargoan lurraldearen antolaketa iraunkorraren ardura duen presidenteorde berria zara. Xantier horri dagokionez, zein da egitura honen ikuspegia, eta zein da berriz zurea?

158 herriak kontuan hartuko dituzten politikak garatu ahal izateko tresna guztiak esku artean ukatea da elkargoaren ikuspegi estrategikoa. Hirigintzari dagokionez, tresnak dauzkagu eta gure berezitasuna da Ipar Euskal Herria bost esparrutan banatu dugula. Bakoitzak osatu beharko du bere herrien arteko PLU Hiri Antolamenduko Plan Orokorra. Beste hainbat tresna ere badira: SCOT izendaturiko lurralde-eskema; lurarren kudeaketaren ardura duen EPFL egitura publikoa; etxebizitza sozialei dagokionez HSA organismoa; mugikortasunaz arduratzen den sindikatua, eta beste. Trantsizio ekologiko eta energetikoaren aldeko nahikari handia senti

da ere elkargoaren partetik. Eta pertsonalki, ondokoak dira nire lehentasunak: etxebizitzak eskuragarri izatea herritarrentzat; laborantza iraunkorrek aitzina segitzea eta Euskal Herrian bizi ahal izateko beharrezko ditugun aktibitate guztien arteko oreka, batez ere aktibitate ekonomikoei dagokienez.

SCOT deitu eskema adostu beharko duzue. Ez da erronka ttipia, Ipar Euskal Herriarentzako norabideak hor marraztuko dituzuelako.

Hori da. Dokumentu hau biziki biziki inportantea da. Bertan finkatuko ditugu lurraldearen antolaketarako segitu beharko ditugun printzipio handiak. Adibidez, herrien arteko PLU Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek SCOTarekin koherentzian egon beharko dute. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako 158 herriak eta Seinautze (Landak) ere bilduko ditu SCOTak. 2021ean abiatuko

dugu lanketa, lerro orokorrak adostuz; ondotik oinarri horretatik finduz eta zehaztuz guztia. Egia da SCOTaren gauzapena lehenago hasi behar genuela, baina hasten ahalko genuela ere, baina ez da horrela gertatu. Dena dela, ikusirik herri guztien sinkronizazio batean garela, oso inportantea izanen da hautetsi guztiek definituriko ekintza guztiekin bat egitea.

Seinautze zergatik loturik da Ipar Euskal Herriaren eremuari?

“Euskal kosta Aturri” izeneko aurreko SCOTaren emaitza da, jada hor elkar loturik ginen. Nonbait, problematika berak dituen bizi eremu bat osatzen dute Baiona-Angelu-Miarritze eta Seinautzek, beraz badu zentzua elkarrekin aritze horrek: adibidez, hirigintza ala mugikortasunari dagokionez. Bistan da, horrek ez du kentzen bi kolektibitateek legedi propioak hartuko dituztela,



adibidez hirien arteko PLU propioekin.

Ariketa aldatuko zaie hautetsiei: lurraldea bere osotasunean hartu beharko dute. Bukatu zaie soilik haien herriari ala herri multzoari so eginez haien lurraldearen antolaketaz erabakitzen zuten garaia. Ez dute baitezpada ariketa erraza izanen.

Bi mailatan eramango da ariketa: Lurralde mailako politika orokor bat adostu beharko dugu denen artean; baina aldi berean tokian-toki ere bai, bost eremuetako hautetsiak mobilizatu beharko dira. Guztia beti bi mailen arteko koherentzia bermatuz.

Hustuz doan Zuberoa eta biztanleria metaturik duen Lapurdi kostaldea. Guztiari so jarritz osatu beharko duzue lurralde-eskema hori.

Erronka horiek aspaldian dira seinaturik. Kostaldean lurraren eta etxe-

bizitzaren tinkaldia ikaragarria da eta aldi berean, eskualde batzuk husten ari zaizkigu. Guztia kontuan hartu beharko dugu eta funtsean, horregatik ditugu eskumen guztiak mobilizatu nahi. Ez da nahikoa zehaztea zein gune den etxebizitzentzat izango, zein den laborantzara bideratuko, zeinetan lantegiak sortuko ditugun... Horrez gain, higikortasunari dagokionez ere erabakiak hartu beharko ditugu, zerbitzuak ere segurtatu beharko ditugu -haurtzaindegia,

“

Kostaldean lurraren eta etxebizitzaren tinkaldia ikaragarria da eta aldi berean, eskualde batzuk husten ari zaizkigu

kultura, ala beste-. Beraz, ez da lan samurra, baina zinez uste dut biztanleriaren eta aktibitateen banaketa orekatua definitzeko gaitasuna dugula.

Barnealdeko herri ttipietako auzapezak kezkatutik eta haserre agertu dira, elkargoaren antolaketa eta kudeaketa zentralista salatuz, kostaldea eta mendi aldearen arteko desoreka deitoratuz. Norabide berri horrek kexua

kalmatuko ote du?

Politikoki, erantzun gisa berriz ere pisu gehiago emana izan zitzaizen tokiko komisierei (elkargoaren sorrera aitzin ziren herri elkargoen arabera banatuz lurraldea). Noski, erronka politikoen artean ondokoak ditugu: entzunak izatearen sentimendua ukaitea lurralde eta herri guztiek, baita tokian tokiko gauzapean eramateko ahalak izatea ere. Horretarako, nahikari politikoko globalaren eta lokalaren arteko oreka atzeman beharko dugu. Zeren aldi berean badakigu problematika horiei guztiei ezin zaiela herritik edota herri multzo ttipi batetik bakarrik erantzun.

Ipar Euskal Herriaren garapen eta antolaketa iraunkorrerako Gutuna izeneko dokumentua plazaratu zuen elkargoak otsailean. Bertan irakur dezakegu herritarren diru-sartzei egokituriko etxebizitza politika duzuela helburu. Argi eta garbi, ez gara egoera horretan.

Justuki, horretarako ditugu dauden tresna guztiak baliatu behar: araubideak, lurrak zein etxebizitzak eskuratzeko eta arrazoizko prezioan berbide-



ratzeko egiturak, eta beste. Benetako erronka dugu, lurraren gaineko presioa ikaragarria delako kostaldean eta bistan da, azkarki bideratzen duelako barne aldeko errealitatea ere. Demagun Uztaritzen lur eraikigarriaren metro karratua 240 eurotan dugu.

Baina tresna horiek guztiak hor dira aspaldian, eta egoera ez doa hobetuz.

Maleruski politikaren tempoa ez doa nahi genukeen bezain laster. Bai, tresna horiek hor ziren jada, baina ez ziren seguruenik behar bezainbat erabiliak eta ez ziren ere modu erabat koordinatuan gauzatuak. Hala ere, nahiko berriak dira tresna horiek. Egoera aldatzeko nahikariarekin gara. Lehen galderan ikuspegiari buruz galdetzen zenidan. Guk Uztaritzen 2014an PLU delakoa berrikusi genuen, ondoko nahikariarekin:

hazkunde ekonomikoa neur-tzea, laborantza eta natura espazioak ahal bezainbat babesteko gisan. Etxebizitzarako ziren 72 hektarea laborantzara bideratu ditugu. Ez da baitezpada erraza izan, baina aldi berean gure asmoa hori zen –horretarako hautatuak izan ginen eta hein batean, aurten ere berri hautatuak izan gara hori egin izan dugulako–.

Erabaki politikoek ere badute haien tokia. Demagun, Baionan etxebizitza ezin lortuz dabil jendea. Aldi berean, Airbnb-ri begira jarri eta hiri honetan duen presentzia alimalea da. Irudikatu dezakegu Airbnb mugatzeko erabaki batzuk hartzen Euskal Hirigune Elkargoa?

Egia da. Airbnb hor dago, baita bigarren etxebizitzak ere, ezin ditugu begiak estali –udal batzutan %50 baino gehiago dira bigarren etxebizitzak–. Hamar milaka bigarren etxebizitza horiek Airbnb-koei gehituz, argi da inpaktua ikaragarria dela eta arazoak dakartzala aterpetzeko orduan, dudarik gabe. Baina Airbnb-ra itzuliz, 2019an neurri bat bozkatu zuen elkargoak, Airbnb alokatzeak deklaratzera behartuz eta hortik, jabetza kopurua mugatuz kostaldean. Lehen urrats bat da, denbora pixka baten buruan aztertu behar dugu neurriak zer emaitza ekarri duen. Gai inportantea da eta seguruenik orain

arte bideraturikoa baino gehiago egin beharko dugu.

Laborantza, industria eta turismoa. Nola lortu daiteke hiruen arteko oreka?

Natura eta nekazaritza espazioak ongi babesten dituen legedia dugu esku artean. Hori erranda, guri dagokigu ahal bezainbat eremu horretara bideratzea. Uste dut hori dela lehentasuna, bate-tik lurra babesteko, eta bestetik, batez ere bertako elikadura osasuntsua eskura ukaiteko. Ebidentzia bat da hori niretzat. Eta hori kostaldean ere egin beharko dugu –bai ala bai–, gelditzen diren lurak babesteko eta nork daki, agian berreskuratzeko ere bai. Gogoa nuke lur hauetan elikadura autonomia-rantz garamatzaan egitasmoak garatzeko, baina hori ez da nire eskumenetan.

Aldi berean, baditugu eskualde batzuk non etxebizitzak eta industria ere badiren, baina jendea bertaratze-ko zailtasunak ditugun.

Industria-gune berriak aurreikusten dituzue?

Politikoki bai, lurralde mailako oreka berriz lortzeko beharko ditugu. Baina oraindik ez da ezer erabakirik.

Turismoari ere iraunkortasunaren ideia lotu diozue.

Uste dut beste politiken gisara, turismoa ere behar dugula iraunkortasunaren lehentasunarekin txertatu. Nire ikuspegitik, masa-turismoa ahal bezain bat saihestu beharko dugu, natura guneak errespetatzen duen turismoa beharko dugu... Bestalde, urte guztian hedaturikoa izan beharko du ere, joera kontsumistarekin datozen turistek eragin masifikazio efektu hori ttipitzeko asmoz.

Energiaren eta klimaren erronka lehentasunetan duzue. Zehazki nola gorpuztuko da hori?

Hasteko, lurraldearen antolaketa alorrari “iraunkorra” zehaztapena gehitu izanak hastapenetik markatzen du nahikeria eta horretaz biziki pozik nago. Gure lurraldearentzat norabide iraunkorra nahi dugulako marka da zehaztapen hau. Jendarte produktibista eta kontsumista honetatik atera behar gara eta zentzu horretara doazen tres-

nak sortu behar ditugu. Berriz diot, sektore guztiak juntatu beharko ditugu: joan-etorriak gutxitu beharko ditugu, energia jale izango ez diren etxebizitzak eraiki beharko ditugu... Ipar Euskal Herria “energia positibodun lurraldea” bilakatzeko helburu politikoa jarri-rik, arlo guztiak horretara bideratu beharko ditugu (energia beharrak ahal bezainbat gutxitzea du helburu “energia positibodun lurraldeak”, urritasuna eta eraginkortasun energetikoa bideratuz).

2050ean Ipar Euskal Herriak elikadura burujabetza lortzeko asmoz lanketa eramaten dabil EHLG Euskal Herriko Laborantza Ganbera, helburura heltzeko beharrezko izango dugun lur eremua kalkulatzeko asmoz. Gogoeta hau txertatuko duzue zuenari?

Bai, bai. EHLGren eta orokorki, eragile nagusien iritzia kontuan hartzea beharrezkoa izanen zaigu –eta ez politeziaz, baizik eta errealitateari egokituriko neurriak gauzatzeko gisan–. Garapen Kontseilua ere hor dugu, kontuan hartu beharrezkoa berdin. Laborantzaren ardura duten lankideen esku izanen da hori, baina hala ere, badakit zein harreman mota dugun EHLGrekin, badakit haien eta gure gogoetak zentzu berean doazela –gero, agian helburura heltzeko molde pixka bat ezberdinak ditugu? Ez dakit–.

Filipe Aramendi Urruñako auzapez abertzalea eta zuk duzue lurralde antolaketaren ardura. Etxegaraik arlo garrantzitsu hau bi abertzalaren esku utzi izana nola aztertzen duzu?

Pertsonalki, harrotasun handia sentitzen dut eta noski, ardura handia ere bai. Pentsatzen dut Filipek sentimentu bera partekatzen duela. Ondoko urteetan elkarrekin lanean ari beharko gara eta jada hasiak gara. Badakit ere lurraldeari dagokionez ikuspegi bera dugula. Uste dut elkargoko presidentek bioi konfiantza erakutsi izanak islatzen duela abertzaleok dugun ikuspegia ez dela berak duenaz hain urrun. Beraz, orain guri dagokigu lan egitea, gure iritziei buruz konbentzitzea eta hitzak ekin-tza bihurtzea –zeren diskurtso ederrak ukaitea ongi da, baina hauen gauzapena hobe da–. Abertzaleok gai nagusi eta inportanteen kudeatzeko dugun gaitasunaren aitortza ere bada. Eta hasiera besterik ez da. ●



Jendarte produktibista eta kontsumista honetatik atera behar gara”

JARDUN

“Garrantzitsuena indarrak batzea da Euskal Herri langilearentzat alternatiba politikoa sortzeko”



Legutioko Albertia mendian 1936ko gudariei egiten zaien aurtengo omenaldia aukeratu dute Jardun koordinadora ezkertiar eta independentistaren sorrera irudikatzeko. Haren atzean bi indar dira. Batetik, tradizio politiko luzea duen Eusko Ekintza eta plazara lehen aldiz iazko abenduan atera zen Jarki antolakundea. Sozialismoaren eta independentziaren bidean indarrak batzeko gunea izan nahi du Jardunek. Jarki eta Eusko Ekintzako kide banarekin hitz egin dugu komunikabideetan eskaini duten lehen elkarrizketan.

 AXIER LOPEZ

Arkaitz eta Josu. Asmatutako izenak darabiltzagu. Segurtasun kontua ala hautu politikoa?

Arkaitz (Jarki): Ez da segurtasun kontua. Azken urteotan mezu politikoaren edukian baino mezua zeinek ematen duen garrantzia handiegia hartu du. Norbanakoaren figura gailendu da kolektiboaren gainetik. Guk edukiari arreta osoa eman nahi diogu, argi uzteko gure proiektua ez dagoela inoren edo zuzendaritza edo elite baten menpe.

Josu (Eusko Ekintza): Izaera kolektiboa azpimarratzeko hautua da.

Ez bozeramaile publikorik, ez webgunerik, ez sare sozialetan konturik...

Arkaitz: Jarkik ez du sare sozialik, edo ikus-entzunezko baliabiderik. Azken urteotako joera politika-espektakulua da. Ikusgarritasun handiko ekimenak egitea,

baina inolako eraginik eta jarraipenik gabekoak. Itxura edukiaren gainetik. Jarkik ez dio sare sozialen erabilerari uko egiten, noski, baina orain ez da lehentasuna. Ezin dugu esan kalea galduta dagoela eta erabateko desmobilizazioaz hitz egin eta gero Twitterretik iraultza bideratzera mugatu. Jendearekin aurrez aurre egoteko unea da. Lehentasuna kailean jarri dugu, baita maila komunikatiboan ere.

Jarki ezker abertzaleko “disidentetzat” hartuko du batek baino gehiagok.

Arkaitz: Jarki ez da inoren disidentzia. Jarki ez da ezker abertzaletik sortzen, ezta ezker abertzalearekin apurtzen ere. Gu etorri gara hona zerbait berria sortzera. Ezker abertzaleak historia eta garapen propioa dituen mugimendu politikoa da, baina eragile iraultzaile gisa agortu-

ta dago. Gatazka ziklo bat ixtear dago, zarratu barik dauden ondorioak alde batera laga barik. Orain beste konfrontazio ziklo bat ireki behar da, eta horregatik da beharrezkoa alternatiba iraultzaile berria sortzea.

Josu: Jardun, Eusko Ekintza edo Jarki nola izango dira ezker abertzalearen disidentzia, inoiz ez bagara Sortu edo aurretik Batasunaren militante izan? Euskal Herrian katolizismoak kaltea handia egin du. EAJ karlisten disidentzia izan zela zioten, gero ANV EAJren disidentzia zela, baita ondoren ETA bera ere. Kontzeptu politikoa baino erlijiosoa da disidentzia. Alde batek legitimitate eta egia absolutuaren jabe eginik, bere multzoan ez dagoenari disidente etiketa jartzen dio legitimitatea kentzeko.

Batek baino gehiagok ez du Jarki ezagutuko. Zein da zuen



2020ko Albertia Egunean, abuztuaren 15ean, aurkeztu zuten Jarki koordinadora. Argazkia: Jardun

antolakundearen indarra edo zabalpena?

Arkaitz: Jarki da borroka ideologiko-rako koadro antolakundea, belaunaldi artekoa. Beste zenbait taldetan arituz den jendea dago eta inoiz inon militatu ez duena ere bai. Gaur gaurkoz, gehien bat, jende gaztea da nagusi Jarkin. Egoera politiko berrian beste belaunaldi bat hartzen ari delako bere gain alternatiba iraultzailea eraikitzeko ardura.

Hego Euskal Herrian herrialde guztietan gaude, eskualdez eskualde, eta horri esker jarduteko gaitasun minimo bat daukagu. Lapurdi, Zuberoa eta Baxenabarri dagokienez, zintzotasun osoz, lehen hartu-emanak izan ditugu, baina gaur gaurkoz ez dugu presentziarik.

Ezartzen ari gara, hedapen eta errotze prozesuan gaude. Gure praktika politikoaren bitartez, apurka-apurka eta apal, nahi dugu ezagutzera eman.

Espainiako Konstituzioaren aurkako manifestazioan 400 bat lagun elkartu ginen Durangon abenduaren 6an. Eta udan Gasteizen, 150 bat lagun bildu ginen, ez gehiago. Oso testuinguru txarrean: abuztuaren, Euskal Herria osasun larrialdi betean sartuta, konfinamenduaren ostean eta beldur debeku eta eskubide murrizketa giroan. Baina hain zuzen, horregatik, garrantzitsua zen manifestazioa egitea, kalera ateratzeko.

Eusko Ekintzaren kasua bestelakoa da ibilbide luzeagoa duelako. Nola dago gaur egun?

Josu: Luzea da gure tradizio politikoa. Albertia Egunean 60 urteko militantzia duten kideak omendu genituen. Gaur egungo gure militante batzuek Herri Batasunaren sorreran parte hartu zuten. Bi estatuei eta kapitalari aurre egiteko, mugimendu izaera ezinbestekoa da. Eusko Ekintzaren tradizio politikoan

“Ziklo iraultzaileak ixten direnean, beti sortzen da nahasmen edo noraez egoera. Euskal Herria ez da salbuespena munduan”



beti kontraesan bera izan da: ezker independentista ordezkatzeko ez da alderdi bakarra behar eta, horregatik, guk inoiz ez dugu gure burua aurkeztu funtzio hori betetzeko. Mugimendu zabal batean gure ekarpen propioa egitea izan da gure hautua.

Azken urteotan, indar handia eskaini diogu oroimen historikoari, borrokarako tresna gisa ulertuta. 1978ko erregimena

kuestionatzen lan handia egin dugu. Horren emaitza da aurtengo Albertia Eguna: nahiz eta data zailetan egin, abuztuaren 28an, azken urteotako jendetsuena izan da.

“Jardun ez da murgilduko mugimendu iraultzailean ezinikusiak edo arrakalak sortzera bideratutako dinamiketan. Elkarlanerako esparruak irekitzera gatoz”



ATA, Herriar Batasuna, mugimendu sozialistaren bueltako hainbat antolakunde, Hauspoa, Jarki, Jardun... Sigla eta talde faltagatik ez da izango.

Arkaitz: Ziklo iraultzaileak ixten direnean, beti sortzen da nahasmen edo noraez egoera. Euskal Herria ez da salbuespena munduan. Aurreko zikloan estatuekiko norgehiagokan ari zen eragileak, konfrontazio dinamika horretan, nolabaiteko batasuna eratu zuen. Tentsio hori apaltzean, batasuna apurto da eta beste talde batzuk sortu dira.

Horrelako egoeretan hiru aukera agertzen dira. Bat, talde asko sortu osten, horietako batek nagusitasuna lortzea eta bere inguruan alternatiba berria sortzeko gai izatea. Bi, talde berrien arteko zatiketa handitzea eta inolako gaitasun eraldatzailerik ez izatea. Eta hiru, taldeen artean adostasunerako puntuak lortu eta sinergiak sortzea.

Azken asmo horren ildotik sortu dugu Jardun koordinadora. Garaia da taldeen arteko zalapartak eta ezinikusiak alboratu eta elkarlanerako guneak sortzeko. Zortzi *txiringito* eta lau pertsona. Eta lau horiek gutxi izateaz gain, haien artean liskarretan daude. Jendea ez da inozoa eta guztiz normala da pentsatzea “ni horiekin ez noa ezta izkina bueltara ere”. Hori ez da serioa. Dinamika hori apurto behar da. Argi utzi behar zaio herriari gu ez gaudela hemen kontrara edo erantzunera mugatutako politika egiteko, baizik eta egiazko alternatiba eraikitzeko gogoz eta indarrak batzeko apustu irmoa eginda.



Indarrak batzeko asmoa zergatik abiatu da Eusko Ekintza eta Jarkiren bultzadaz?

Josu: Urtebete baino gehiago daramagu gure artean gauza askori buruz hitz egiten, elkar ezagutzen eta adostasunak bilatzen. Horren ostean sortu da Jardun.

Arkaitz: Nonbaitetik hasi behar delako eta Eusko Ekintzarekin lehen aldiz hitz egin genuenen ikusi genuen borondatea zegoela elkarlanerako esparruak sortzeko.

Adostu dituzuen minimoak ondoregoak dira: independentzia, sozialismoa, internazionalismoa, klase feminismoa, amnistia eta ekologismoa. Elkar lotuta ikuten dituzue?

Arkaitz: Bai. Minimo zabal batzuk dira, Euskal Herrian oso ohiko bilakatu den “betiereko eztabaidan” egotea gainditzeko. Hartara, zerotik hasi gabe, gainerako taldeekin eduki zehatzez hitz egiten has gaitzen.

Indar metaketa horretan, zer jende edo talde duzue buruan?

Arkaitz: Talde askorekin hitz egiten ari gara. Handiak eta txikiak. Ez dugu inor alboratu. Horren adibide da Bilboko Bultzatza herri ekimena orain hiru aste Jardunera batu izana. Baina, noski, akordiorik lortu arte, errespetuagatik ez dugu beste inoren izena esango.

Egungo panorama politikoan era antolatuan eta programa komun baten pean bere lekua aurkitzen ez duen orori irekita dago, beti ere adostutako minimo horien bueltan.

Josu: Bi esparru mota zabalduko ditu Jardunek parte hartzeko. Erakunde sektorialak eta tokian tokiko taldeak. Baina

beti, gauza bat argi erakunde sektorialak ezin dira zuzendaritza nazionalaren txotxongilo izan. Dinamika eta gaitasun propioak izan behar dituzte. Beste era batera egin behar dira gauzak. Militantzia kritikoa ezinbestekoa da. Jendartea eraldatzeko. Herriar militante kritikoak sustatu eta antolatu nahi ditugu Jardunen. Horregatik lehen dokumentuan bertan argi arbuatu ditugu *entrismo* edo dirigismo saiakerak. Edozein aldaketarako ezinbesteko humusa da herri mugimendua.

“Jarki ez da inoren disidentzia. Ez dugu ezker abertzalearekin apurto, ez garelako ezker abertzaleetik sortu. Gu etorri gara hona zerbait berria sortzera”



Berriki, “alderdikeria”, “haien kideen aurkako gezurrak zabaltzea”, Jardunen barruan, “bozka eskubidearen monopolioa izatea” eta “nor gonbidatu eta nor ez hautatzea”.... leporatu dizuete Mugimendu Sozialistako bost kidek artikulu batean.

Arkaitz: Antolakunde politiko orok herriarekiko erantzukizuna dauka eta herriak epaituko du bakoitzaren praktika politikoak. Arduraz jokatu behar da eta beti ikuspegi eraikitzailez. Jardun ez da murgilduko mugimendu iraultzailean

ezinikusia edo arrakalak sortzera bideratutako dinamiketan. Gu prest gaude asmo eraikitzailez ari den antolakunde ororekin bildu eta elkarlanerako esparruak irekitzeko. Baina inolaz ere ez dugu egungo panorama soziopolitiko toxikoa elikatuko. Garrantzitsuen indarrak batzea da eta Euskal Herri langileak bere egin dezakeen alternatiba politikoa integral eta sinesgarri bat aurrera eramatea.

Josu: Arrakalak ez ditugu sustatu nahi. Herria nekatuta dago dinamika sunstiztaile horiekin. Liskar eta sare soziale-tako zurrumbiloetatik kanpo, askoz garrantzitsuagoa deritzogu aurrez aurre biltzeari eta zintzoki hitz egiteari.

Garaiotan zalantzak eta galderak ez dira gutxi antikapitalista eta independentisten artean. Zer egin, nola, norekin egin? Zuek diozue, “herri langile gisa kapitalari aurre egiteko”, argi duzuela “jarraitu beharreko estrategia”. Zein da, bada?

Arkaitz: Akuiluak dira kontzientziakzioa, aktibazioa, mobilizazioa eta antolakuntza espazio berrien sorrera sustatzea. Egoeraz kexatzeaz harago, gizartearen

erradikalizazio gradualari begira, bidegabekeriei aurre egin eta antolatze-ko prestutasuna zabaldu nahi dugu. Hori da borroka ideologiko eta mobilizazioen bitartez hurrengo urteetan sustatu nahi dugun estrategia.

“Kontzientziakzioa, aktibazioa, mobilizazioa eta antolakuntza espazio berrien sorrera sustatzea dira akuiluak, gizartearen erradikalizazio gradualari begira”



Zer asmo duzue epe laburrera begira?

Arkaitz: Elkarlanera talde gehiago batzeko asmoz, hurrengo hilabeteetan kontaktu errondari eutsi eta sozializazio

kanpaina egingo dugu, zenbait herritan aurkezpenak eginez.

Josu: Jendearekin egoten jarraituko dugu, zalaparta handirik gabe. Guk ez dugu nahi kristoren suzeria bota, ez dakit zer nolako aurkezpen nazional entzute-tsu bat egin, baina gero atzean ezer egituratu gabe edukita. Sare sozialik gabe, aurkezpen nazional panpoxorik gabe, ematen lezake ez zaudela, baina erreallitatearen isla izan nahi dugu eta gauzak beste era batera egin.


Arkaitz: Jarkiri dagokionez, Gudari Egunaren lanketan sartuta gaude eta ondoren abenduaren 6ko manifestazioa lantzeari helduko diogu.

Josu: Espainiako monarkia krisian dagoela, oroimen historikoaren lege berriaren eskutik 1978ko erregimena legitimatzeko ofentsiba dator. Zenbait ekimen ari gara lantzen Eusko Ekintzan. 1978ko amnistia legea ezbaian jarri gabe ezin izango da frankismoa epaitu. Martin Villaren epaiketaren harira sistemaren alderdi eta sindikatuen erantzuna ikusi besterik ez dago. Espainia ez den Europako beste edozein estatutan ezinezkoa litzateke horrelakorik gertatzea. ●



1936ko gerrako gudariei omenaldia
2020ko Albertia Egunean.
Argazkia: Jardun

Puy de Fou: historia berrikusten ez duen historia-parkea




NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Guadalete ibaia (Betika), 711. Guadaleteko guduan musulmanek bisigodoak mendeen hartu zituzten. Roderiko Iberiar penintsulako azken errege bisigodoa hil zen eta musulmanen agintaldia abiatu zen horrenbestez. Eta, kondairaren arabera, Septemeko (egungo Ceuta) Don Julian kondearen alaba Florinda *La Cava*-k eragina izan zuen gertakizun horretan.

Egun batez, Toledoko gortean, Florindak bainua hartzea erabaki zuen bere dontzeilekin, Roderiko hari begira zegoe-la konturatu gabe. Erregeak burua galdu omen zuen eta, Florindarekin obsesionatuta, azkenean, bortxatu egin zuen. Beste bertsio batzuen arabera, Florindak berak trikimailu maltzurrez seduzitu omen zuen Roderiko (*La Cava*-k “emakume txarra” edo “prostituta” esan nahi du). Bertsioak bertsio, Florindak aitari desohorearen berri eman zionean, Don Julianek, musulmanekin bat egitea eta bisigodoen aurka borrokatzea erabaki omen zuen.

Hori guztia benetan gertatu zen frogarik ez dute aurkitu historialariek, eta bisigodoen gainbehera azaltzeko kontakizun moralizatzaileetat dute. Baina Toledoko Puy de Fou historia-parkeak, garai hartako aldaketa sakonen piztailea irudikatzeko, musulmanak eta emakumeak gaiztotzat edo arazoen kausatzat eta bisigodoak zein gizonak beren apektak kontrolatu ezin dituzten biktimatzat jotzen dituen kondaira hori aukeratu du.



Puy de Fou historiari buruzko parke tematikoa 1978an abiatu zen Frantziako Loirerrian, izen bereko gazteluaren inguruan. Enpresa hori beste parke bat egiten ari da Toledon, ateak 2021ean zabalduko dituen. Baina, aurrerapen moduan, lehen ikuskizuna abian da. “Toledoren ametsa” izenburupean, hiriaren eta, orokorrean, Iberiar penintsularen 1.500 urteko historiari egiten zaio errepasoa. Eta, esan bezala, musulmanen konkista Florinda *La Cava*-ren kondairaren bidez azaltzen du.

Iraganeko gertakizunen erreferentziaz josita daude toki askotako hainbat tradizio eta festa, oinarri historiko zalantzazkoa duten edota zenbait kolektibo gutxiesten dituzten elementuak barne. 2008an, esaterako, Antzuolako

Mairuaren Alardea egokitu zuten, musulmanak umiliatzen zituzten elementuak kenduta, baina oinarri historikoari eutsiz. Eta emakumeek iraganeko gertakizunetan zein egungo ospakizunetan duten parte-hartzea ezbaian dago han eta hemen. Baina historia oinarri duen Puy de Fou proiektu berri erraldoian ez.

2019ko maiatzean proiektua aurkeztu zutenean, Puy de Fouko kontseilari ordezkarri Erwan de Villeon-ek esan zuen kontakizunean irizpide historikoak kontuan hartzen dituztela, baina narrazioak eta emozionalak ere bai. “Ez gara historialariak” gaineratu zuen. Baina historia saltzen dute, eta bisitari gehienek historiari buruzko ezagutza eragin handiagoa eta zuzenagoa izango dute edozein historialarik baino. ●

...eta ingurumen arauak ere betetzen ez dituen

Puy de Fou enpresak eredu ekonomikoa berezia du: %100 autofinantzatua dago eta ez du dirulaguntza publikorik jasotzen. Eta ingurumenari garrantzi handia ematen dio: CO2 igorpenak gutxitzeko eta ur zikinak berreskuratze ahalegina egiten du. Baina, Espainiako proiektuan behintzat, baldintza horiek erabat ez direla betetzen salatu dute Toledoko hainbat elkarte

eta talde ekologistek, Queremos Saber la Verdad del Puy du Fou (Puy de Fouri buruz egia jakin nahi dugu) mugimenduan bat eginda. Dirulaguntza zuzenik ez, baina Gaztela-Mantxako Gobernuak proiektuari arauz kontrako baimen publikoak eman dizkiotela diote. Tajo ibai ertzeko eremu hori legez babestuta dago, daukan balio natural eta arkeologikoagatik. Bestalde, proiektua onar-

tzeko interes bereziko proiektuen araua erabiltzea konstituzioaren kontrakoa dela salatu dute. Eta, gainera, lehen ikuskizuna martxan jarri denean ikusi dute suziriek eta argiek ere ingurumena babesteko arauak hausten dituztela: suteen kontrako legeak ez dituzte betetzen eta espezie babestuei kalte egiten dien argi eta soinu kutsadura eragiten dute. ●

AGROEKOLOGIA MUGIMENDUAREKIN ELKARLANEAN ATERATAKO KAMISETA BERRIAK

Lurra herriari deika

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Muturreko egoeretan fenomeno bereziak gertatu ohi dira. Ez dakit beste momentu batean erantzun bera jasoko ote zuen, baina indartsua izan zen konfinamendu garaian herritarrek baratzera joateko debekuaren edo azokak ixteko erabakiaren aurrean emandako erantzuna. 2020ko udaberrian agerian geratu da elikadura burujabetzaren garrantzia eta lurrikara honek balio izan du aliantzak sortzeko agroekologia ereduaren bueltan dabilzan hainbat eragileren artean. ARGIA ere saltsan da.

Eztabaida mahai-gaineratzeak bigarren galdera zorrotz bat ere atera du: Nola? Alegia, bertakoa bai baina nola ekoizitakoa? Horregatik hitz egiten dute, nekazaritzaz baino, agroekologiaz. Genero harremanak lantzen dituzte, baserritarren burujabetza dakarten produkzio moduak (makinariekiko, pestizidekiko, petrolioarekiko menpekotasuna moztea bilatuz), langileen eskubideak lantzen dituzte (migranteen egoera nekazaritzan ez dadin esplotazioa izan), ingurumenarekiko errespetuzkoa izatea... "Nekazaritza guztia ez baita berdina", diosku Mirene Begiristain taldeko ki-deak. "Balio izan digu bigarren eztabaida hau ere jendarteratzeko, mahai gainean jartzeko zer nekazaritza eredu bultzatu eta egin nahi dugun".

ARGIaren irakurleak sartua du bertako produktuak kontsumitzearen kontzientzia eta ARGIA bera ere "nola?" galdera horri erantzuten ahalegintzen da bere esparruan. Kazetaritza guztia ere ez baita berdina. Berauek jarri ziren harremanetan agroekologia mugimenduko zenbait eragilerek, elkarlan bat haste-ko intentzioz. Bertan batu dira momentuz: Gipuzkoako Biolur, Baserria XXI eta Basherry Sarea elkarteak, Arabako Naturaraba eta Bionekazaritza, Bizkaiko Ekolurra eta Urduñako elikadura estrategia, Nafarroako Bizilur elkarteak, Baztango Zaporeak eta Sakanako garapen agentzia eta Belardi baserritar elkarteak, Euskal Herri mailako Etxalde nekazal mugimendua eta EHkolektiboa. "Sektore berekoak izanik ere, bakoitzak du bere lan eremua eta denok elkar ezagutzen badugu ere, egunerokoan murgilduta gaude, eta elkarlanerako esparru askorik ez dugu", azpimarratu du Begiristainek. "ARGIarekin abiatutako proiektu honek laguntzen digu agroekologia mugimenduan gabiltzanok lotzen gaituen haria sendotzen; ilusioa nabari da", dio.

KAMISETAK SALGAI

Oraingoz "Lurra herriari deika" kamisetak jarri dituzte salgai, Maitane Gartzandiaren diseinuarekin, %100 kotoi organikoz eginak. Erosketa bakoitzeko



MIKEL OLARIDE

19,5€

**Erosketa bakoitzarekin
2 €-ko ekarpena egingo diozu
agroekologia mugimenduari
eta beste hainbestekoa ARGIAri.**

Erosteke:
azoka.argia.eus
943 37 15 45

2€-ko ekarpena egiten zaio agroekologia mugimenduari eta beste hainbestekoa ARGIA komunikazio proiektuari.

Lurra zaintzearen aldeko mezua zabaltzeko bidea da kamisetena, agroekologia ezagutzera emateko modu bat. Elkarlanak emango ditu, ordea, fruitu gehiago datozen hilabeteetan. Entzun dezagun deiadarra! ●



MIKEL OLARIDE

LANDARETXO BAT



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Haurrak 11 urte ditu. Baloiarekin jolasean ari da, eta halako batean landare bat jo eta hondatu egin du. Loreontzi batean bizi den hosto lodiko landaretxoa da. Baloia jaso du. Papertxo batean ohartxo bat idatzi eta landarean utzi du. Eta alde egin du.

Landarearen zaintzailea iritsi denean, paper muturra ikusi eta hartu du. Paperean bost euroko billetea dago. Papereko oharra irakurri du. Landareari begiratu eta zerura begira jarri da. Ortzi-mugatik haratago begirada galdua duela konturatu den arte. Malkoei eusten ari da. Atzera landareari begiratu dio.

Landarezainak bizilagun du Giovanni Grandi. Hau irakaslea da. Paduako Unibertsitatean bi irakasgai emandakoa "Antropologia filosofikoaren oinarri

teoriko eta historikoak" eta "Gatazka-ren analisisa, justizia formak eta erremediatze praktikak". Egun Triesteko Unibertsitateko irakasle da, Politika eta Gizarte Zientzien sailean, eta Filosofia Morala irakasten du.

Giovanniren bizilagun landarezainak landarean topatu duen paper muturra erakutsi dio. Bi, hiru aldiz irakurri du bertan idatzitakoa. Bizilagunari begietara begiratu eta, honek ez, malkoei ezin eutsi die.

Baretu denean halaxe esan du irakasleak: "Unibertsitateko Etika Publikoko nire hurrengo ikastaroa has daiteke soilik honekintxe".

Paper muturrean haurrak idatzitako oharra hala dio: "Kaixo, sentitzen dut landareagatik: nahi gabe futboleko baloi batekin jo nuen. Hemen bost euro kalteagatik". Sinadura du azpian.

Besteekiko arreta eta erantzukizuna hartzeko eta konponketaren aldeko jarrrera hori azaltzeko gaitasuna azpimarratu beharko genuke. Baina hori dena landare soil batengatik; landaretxo batengatik! Guk zer egingo genuke haur horren tokian izan bagina?

Hortxe alde garrantzitsua: landare bat. Zuhaitz handiena balitz ere, gehienontzako landare bat besterik ez litza-teke. Ezer ez, ez ohar eta gutxiago eurorik merezi ez duena.

Behin gertatu zitzaidan Gipuzkoako Foru Aldundia egiten ari zen bidelan batean, aldameneko zuhaitzak eta arbolak hondatu eta nik haien jabe zen udalaren izenean bertaratu beharra, obrako ingeniariarekin konponketaz hitz egiteko. Ingeniari harroputzak hala esan zidan: "Zuhaitz horien kalteak? Mesedez, guk bideak egiten ditugu!". ●



ONDALANKOOP

ONTZIRATUTAKO PLATERAK, SASOIKO ETA HURBILEKO PRODUKTUZ EGINAK



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Nafarroan sortutako ekimen berria da Ondalankoop, burujabetzaren aldeko eragilea eta herri mugimenduko tresna izan nahi duena. Egitasmoaren helburua herritarrei asteroko menuak eskaintzea da: ontziraturako otorduak izanen dira, baina kalitatezko produktuekin osatuak. “Astero menua aldatzen joanen da, eta bertan emanen ditugun elikagaiak sasoikoak, hurbilekoak eta ekologikoak izanen dira”, dio proiektuaren bultzatzaileetakoa den Maider Ondarra-k. Jose Javier Oses “Jotas” du bidelagun eta Daniel Fernandez sukaldaria arituko da haiekin batera.

HIRU HERRITAN FROGAK

Elikadura burujabetzaren eta ekonomia sozial eraldatzailearen inguruan lanean zebiltzan lehenagotik kooperatibako bi kideak Udalbiltza eta Olatukoopen eskutik, eta kontsumoaren bidez jendar-tea eraldatzeko tresna berri bat sortzea dute asmo. Garatzen ari diren egitasmoa urrian jarriko dute martxan, hasteko, hiru herritan: Unx, Tafalla eta Burlatan. Nola funtzionatuko dute asteroko menuak? Astero hamasei ontzi ezberdin eginen dituzte, eta astea bi multzotan banatuko: astelehen-astearte-asteazken blokea, eta ostegun-ostiral-larunbat blokea.



Astean bitan egingo dute sukaldean, eta hiru herrietan ontziak biltzeko puntuak egonen dira: lehen blokekoak igandean 18:00etatik aurrera, eta bigarrenekoak asteazkenean 18:00etatik aurrera. Barazki eta lekaleen ontziak lau euroan egonen dira, eta haragi eta arraina sei euroan. “Ondalankoopetik aterako diren etekin guztiak burujabetzaren alde lan egiten duten proiektuetara bideratuko dira”, azaldu du Ondarrak.

EGITASMOA BABESTEKO DIRU BILKETA

Itsulapikoa plataforman diru bilketa kanpaina dute abian Ondalankoopeko kideek: sukaldean beharrezkoa den makinaria ordaintzeko bideratuko dute. “Etxetik at jaten duten pertsonak geni-

tuen hasieran buruan, baina segituan ohartu gara jende asko dagoela honetan interesatua: adineko jendea, sukaldean aritzeko denbora gehiegirik ez eta haurrak dituztenak, lantegietako langileak...”.

Dena den, erosotasunarekin bakarrik ez, ongi jateko eskubidearekin ere lotzen dute egitasmoa. Ongi jateko eskubidea denon behar lukeela aldarrikatzen dute, eta horretarako ere ari dira lanean: hainbat herritako gizarte zerbitzuekin harremanean daude, eta Ondalankoopetik ontziraturako platerak beharra duten pertsonen iritsaraztea ere bada beraien helburua. Egitasmoari iraunkortasuna emateko, nahitaezkoa izanen da jendearen parte hartzea eta bazkidetza. Informazio gehiagorako eta proiektuari ekarpena egiteko ondalankoop.eus webgunea sortu dute. ●



BIOTERRA

Sarrera
doan

Euskadiko
EKO azoka
haundiena

Produktu ekologikoak, bioeraikuntza,
energia berriztagarriak eta
kontsumo arduratsua

Urria FICOPA

9 · 10 · 11 · 12



Ficobara
zuzenean!
euskotren

“Beste gizon eredu bat agertu nahi dugu taula gainean baina ez burutik, erraiaietatik baizik”

Bi mutilen arteko laguntasuna kontatzen dute bertso musikatu bidez Ander Lizarralde eta Unai Muñoak: botere harremanak; ispilu aurrean jartzea; txanpon beraren bi aldeak izatea... gizontasun ereduak. Publikoa tarteka barre katartikotan lehertzen da, baina oso gordina da taula gainean gertatzen ari dena...

Imanol Kamio (pianoa) eta Aitor Atxega (gitarra) musikariek janzten dute emanaldia. buhameak.eus webgunean aurkituko ditugu talde gisa eskaintzen dituzten musika eta bertso formato anitzak, eta *Erik eta Win* emanaldiaren hurrengo hitzorduak: urriak 17 Aia, urriak 25 Irurita eta azaroak 20 Zaldibi.

Badoa herritarra bertso emanaldi musikatu bat entzutera... eta topo egiten du eszenatokian maskara kenduz biluzten diren bi gizontasun eredurekin. Nola iritsi zarete horretara, zer gertatu da horren aurretik?

UNAI MUÑOAK: Emanaldi hau kontatu nahi batetik sortu zen. Ander eta biok terapian genbiltzan duela urte asko, eta gure bizitzako gauza asko deskubritzen ari ginen: ordura arte kateak eta trabak izaten ari zirenak kentzeak hainbesteko arindua sentiarazten zigun, kalean ere partekatu nahi genuela.

Nork gure historia kontatzen dugu, baina inor seinlatu gabe. Hori da gure modua: "Gu hemendik gatoz eta hau da birplanteatzen ari garena" kontatzea eta jendeak bere burua islatuta ikusten badu, zoragarri.

ANDER LIZARRALDE: 2013an *Ez gara Palestinaz ari* emanaldia estreinatu genuen, baita ere prozesu terapeutikoan deskubritutako elementuetan oinarrituta. Lehenbiziko emanaldi hartan behar pertsonal bat zen kontatzea, irrika handiagoa neukan. *Erik eta Win* egitea ez da niretzat behar pertsonal bat izan, gehiago izan da konpromisoa: kontatuko genuen horrek on egingo duela eta besteengan korapilo asko askatu ditzakeela sentitzen nuen.

Ez da eroso, Muñoari askotan esaten nion: "Nik ez zeukaat inongo beharrik gaur egunean hau kontatzeko, motel!", eta gainera eszenatokira ateratze hutsa estres bat da. Baina sentitzen duzu gizarteari zerbait onuragarria egiten ari zarela, geure ttikian. Gauza asko ulertzea, baina azken pauso sortzailea eman gabe, antzua da. Prozesu guztiek behar dute bukaeran materializatzea, norberak ikusitakoa transmititu ere egin behar da.

Antzerki zuzendaria ere izan duzue honakoan, Asier Sota. Emanaldian antzerkiak pisu handia du baina aldi berean "oso zuek" zarete. Nola landu duzue?

A. LIZARRALDE: Karikaturizatutako pertsonaiak dira Erik eta Win, nahiz eta gu garen. Hau da, gure keinu bakoitzaren adierazpenik handiena bilatu dugu, eraginkorra izan dadin. Baina nahiz eta gure berezko erreakzio bat izan taulara eraman duguna, ez denez bat-batekoa, hau da, badakizunez hori egin behar duzula eta gidoiaren parte dela, askotan blokeatu egin gara. Sotak lagundu digu desblokeatzen eta ereduak ematen.

U. MUÑOAK: Sotari gidioia eman genion, bertso sortak, eta inprobisatu egiten genituen eszena batzuk. Sotak elementu guztiak hartu eta koheren-

A photograph of two men standing on a balcony with a black metal railing. The balcony is part of a large, historic stone building with a prominent archway in the background. The man on the left is wearing a dark blue sweater and light-colored pants, while the man on the right is wearing a black jacket over a black t-shirt. The text is overlaid on the left side of the image.

UNAI MUÑOA ETA

ANDER LIZARRALDE

"ERIK ETA WIN"
EMANALDIKO "ERIK"
ETA "WIN"

tzia bat, logika bat, hari bat eman dio, guk menperatzen ez ditugun elementu artistiko askorekin. Forma oso bat, historiak bilakaera izan dezan.

Eta bai, karikaturizatuta baina gu gara taula gaineko pertsonaia horiek, baina hain justu pertsonaia hori egiten ari gara, hori bakarrik ez garela konturatzeke. Ni izan naiteke Arnaldiño, hau da, izan dezaket oso rol sozial, diskurtsibo eta erretrikoa, eta asko hitz egin eta konbentzitu eta seduzitu... baina hori da nik eraiki dudana pertsonaia, nire bizitzan zehar sozializatzeko. Okerrena da urte askoan sinetsi dudala hori naizela. Denborarekin konturatu naiz, "hori ere bahaiz, baina ez hori bakarrik". Badaude beste Muñoa batzuk erreprimituagoak daudenak, eta horiek sozialki ateratzea da lana. Hori guztia egin ostean, agian jada ez dut hainbestetan Arnaldiño izan beharrik: konturatu nahiz zer egiten dudana, zergatik, eta munduari esan diot "nire fartsa hau da". Eta beste Muñoa bat agertzen hasten da.

Eszenatokian zuen arteko harremana eta bilakera ikusten da, eta horretarako talka eta txispak ateratzen dira. Benetako harremanetan ere txispetatik egin duzue aurrera?

A. LIZARRALDE: Bai, emanaldi hau txis-

petatik atera da eta hori da emanaldiaren funtsa. Gatazka horretatik, saihestu nahi dugun horretatik atera dugu mamia, hori baita erreala. Beste guztia egiten, aurpegi ona jartzen eta politikoki zuzenak izaten denok dakigu. Baina pertsonok benetan harrapatzen gaituena da ikustea beste pertsona bati tekla bat ukitzen diozula. Zerbaitegatik egiten digute pertsona batzuek grazia, eta gorroto ditugu beste batzuk. Eta sentipen horiek lantzen badituzu, azkenean batzuk grazia gutxiago egiten dizu eta bestearekiko gorrotoa ere jaitsi egiten zaizu. Gizarte gisa ulertuko bagenu, besteengan errabia ematen digun hori geurea dela! Emanaldian honelako mezu batzuk ere eman nahi izan ditugu.

Errealitatean, urtetan gure laguntasuna txispetan oinarritu da, haserreetan, eta azken urteetan gardentasunean. Gure harremana terapiako probatoki bezala erabili genuen. Egun, gehiago barkatzen diogu elkarri "beno, Muñoa

“

Karikaturizatuta baina gu gara taula gaineko pertsonaia horiek, baina hain justu pertsonaia hori egiten ari gara, hori bakarrik ez garela konturatzeke”

“Klandestinoan duguna libre ateratzeak eraikiko gaitu. Besteen kondeszendentsiatatik esaten ditugun gauzek fundamentu gutxi daukate”

Unai Muñoa

horrelakoa duk...”, “beno, Lizarralde horrelakoa duk...”.

U. MUÑO: Nahiz eta batzuetan... [barreak]

Pertsonala politikoa da. Asko biluztu zarete...

A. LIZARRALDE: Ez da erraza, zerbait kontatu nahi duzu, ez duzu inor seinalatu nahi, baina zu horra eraman zaituen pertsona kopuru bat bada, familia edo inguru bat bada... oso muga estua du kontatzeak, zeren nire historia da baina nahi gabe ere beste batzuen historia ere kontatzen ari zara publikoki.

Ahalegin berezia egin dugu, eta hala ere, seguraski gure ingurukoren bat minduko zen. Terapia munduan gabiltzanok partekatzeke ohitura hartzen dugu, eta konturatzen zara gauza batzuk seinalatuta edo esplizitu eginda soilik joan daitezkeela zugandik.

U. MUÑO: Epaitua izateko beldurrak asko eragiten dit, besteek zer pentsatuko duten, zer esango duten... entzuleak gure emanalditik ateratzeko moduan bi




aukera ditu: ispilu modura gogoetarako erabiltzea (horrela bada, guretzat sari bikaina da), eta beste aukera horri ihes egitea da, ezkutatzea, eta esatea: "Hara Muñoa ze gizajoa!". Nik ikasi beharko dut komentario hori eramaten, eta balio izan dit epaitua izateari bere neurria emateko nire baitan. Badakit zein ditudan nire inguruan, eta haiekin sakontasunezko harremanak izateak ematen dit egonkortasuna, badakit haiekin ez naizela zenbait gauza ezkutatzen ibili behar. Azkenean, epaiari diogun beldurra, baztertua izateko beldurra baita. Beldur horri ihes egiteko behar dudana elementua da jakitea koltxoi on bat dudala, lagunarte sendo bat.

A. LIZARRALDE: Gogor egin diogu gure buruari eta bagenekien eszenara ateratzeko guk ere gaizki pasatu beharra geneukala neurri batean, eta lotsa ematen ziguten gauzak kontatzen ez bagenituen, ez genuela emanaldi on bat egingo.

Erik eta Win-en arteko botere harremana kontatzen duzue taula gainean. Nola lotzen duzue botere harreman hori genero sistemarekin?

A. LIZARRALDE: Gure lotsaren zatirik handiena, agertzeko zailtasunik handiena, gizon ereduarekikoa zen. Guri ezarri diguten gizon ereduaren ezaugarriak handiena, ahuldadea ezin agertua da. Eta hori oso bortitza denean, eragiten dizuna da zu ez agertzea zaren bezala, baizik eta "bale, bale, nolakoa nahi duzue izatea? Zuek esaten duzuen bezalakoa izango naiz". Guretzat garrantzitsua zen beste gizon eredu bat agertzea baina ez gure gizentasuna edo gure agresibitatea ukatzetik, alegia, ez burutik, erraieratik baizik. Emanaldian askotan ez gara politikoki zuzenak. Norbaitek gaizki hartu dezake, baina haxe naiz ni. "Niri hau izatea eskatu didate baina ni ez naiz hau bakarrik" esatea, bada neurri batean eredu askatzaile bat emateko abiapuntua, "hi izan hadi nahi duhan bezalakoa". Emanaldia publikoari esaten ari zaio "entenditzen zaitut, niri ere pasatu zait gauza bera, baina ez naiz etorri zu juzgatzera". Babes hartzeko leku bat izatea nahi dugu eta gizarte honetan gero eta bakartuago gaudenez, ariketa polita da.

U. MUÑOA: Uste dut ongi erakusten duela gizontasunean dagoen noraeza handia. Gizonezko askok ez dakite non kokatu, mugimendu feministaren eta genero iraultzairen testuinguruan. Galderak dira planteatzen ditugunak, ez erantzunak. Ligatzeko eszenan, adibidez, bai Anderrek eta bai nik mutil eredu bana ateratzen



dugu taulara, baina biok gaudela galduta, eta publikoari sortzen zaion galdera da: "Eta zein da ligatzerakoan posizio natural bat, intoxikatu gabeko posizio bat?". Galdera horiek ez dira erantzuten, gu ere formazio prozesuan gaudelako.

Plazetan bat-bateko saioetan posible al da kareta horrela kentzea?

A. LIZARRALDE: Faktore askok eragiten dute, lehenik gaitasunak. Nahi dudana baino, bertsotan ahal dudana esaten dut. Batzuk ba omen dira nahi dutena esaten dutenak... emanaldian zerbaitegatik ez ditugu bat-bateko bertsoak kantatzen. Bat-batean askotan gaiak behartzen zaitu eta bertso saioa ez da biluzteko leku bat izaten, beste ezaugarri batzuk ditu. Urte asko kostatu zait konturatzen bertso saiora joaten nintzenean, nire buruari ematen nion barruko mezua zela "nitaz ez duzue barrerik egingo, e!". Egoera larrietan, eta bat-bateko bertsoa niretzako egoera larria da, lehenbizi agertzen zaizkidanak kareta horiek dira, hainbestetan salbatu nauten kareta horiek. Ez dituzu kareta agertu nahi, baina han agertzen dira eta hortik kantatzen duzu. Erik eta Win emanaldian kareta kentzen dugu eroso gaudelako, badakigulako zer kantatuko dugun...

“

Gatazketatik, saihestu nahi dugun horretatik atera da emanaldi honen mamia, hori baita erreala”


"Bagenekien lotsa ematen ziguten gauzak kontatzen ez bagenituen, ez genuela emanaldi on bat egingo"

Ander Lizarralde

U. MUÑOA: Bat-bateko saioetan zailagoa da nork bere baitako klandestinitatea ateratzea. Politikoki zuzena ez dena oso zigortua da eta plaza publikoan esaten baduzu, gehiago. Horrek barne polizia lan handia eskatzen du: "Hau ezin dut erakutsi, hau ezin dut esan...". Bat-bateko jardunean ez dut erraz ikusten libre aritzea, nahiz eta politikoki zuzena ez izan, nahiz eta esango duzuna eredugarri ez izan. Eta zerbaitek eraikiko bagaitu, hori izango da, klandestinoan duguna libre ateratzeak. Besteen

kondeszendentsiagatik esaten ditugun gauzek fundamentu gutxi daukate.

A. LIZARRALDE: Emanaldian mugitu egiten gara, ia negar egiten dugu, txororarena... Bat-batean ari garenean, ez dugu ezta eskua poltsikotik atera ere egiten! Testuinguru bakoitzak bere arau zehatzak ditu. Publiko bezala ere, emanaldi batera goazenean pertsonaia bat ikusi nahi dugu, eta bertso saio batera goazenean berriz, bertsolari bat mugitzen hasten bada pentsatzen dugu "hau da pailazoa". Zer arraio, bertsolariak une horretan agian horixe egin nahi du, ez ote du bada mugitzeko ere eskubiderik? Baina halaxe da, formato batean hain libre sentitzen zara eta bestean hain lotua... Bertso mundua, nahi ez dela ere, juzgatzailea da eta zorrotza. ●



LIBURUA

Txute kritikoa



EUSKAL MATXINADA. GENEALOGIA ETA EGUNGO EZTABAIDAK ANDONI OLARIAGA

TXALAPARTA, 2020

ALAI, 2020

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Espero dut liburu honek ekarriko duela eztabaida. *Euskal Matxinadaz* ari naiz. Liburuarekin *Iparorratzaz* bilduma hasi du Txalapartak eta diot espero dudala eztabaida ekarriko duela, izan ere, aho bilorik gabe hitz egiten du Andoni Olariagak orrietan zehar: “san-kristo guztiak erabili [zuen biolentzia] beraien helburu politikoetarako”, ezin ukatu baieztapenaren egiazkotasuna.

Itxuragatik, Anagramaren *Nuevos cuadernos* kolekzioa dakar gogora bildumak, baita Katakrakek “01” zenbakiarekin hasi zuena eta “02”aren zain gabiltzana. Itxuraz gain, elkarbanatzen dute beste zerbait saiakera laburren liburuek, hau da, pentsamendu kritikoaren txute bat direla, arratsalde bakarrean irenstekoak eta presarik gabe

prozesatzekoak, adikzio puntu bat ere sor dezaketenak. Hala ere, Olariagaren liburu honekin Txalapartaren kolekzioak zerbait ezberdina dakar, alegia gurean kokatzen du irensteko eginda dagoen pentsamendu kritikoaren diskurtsoa.

Jarraian azalduko ditut liburura engantxatu nauten bi hari. Lehenengoa da euskal gatazka birpentsatzen duen elkarrizketan parte hartzeko modua. Bigarrena da klaseari ala nazioari buruzko eztabaidan hartutako kokalekua.

Euskal matxinadaren ideiak laguntzen du ulertzen ETArekin ez zela euskal gatazka bukatu. Bidegabekeriaren aurka egin zuten, egun diharduten, eta egingo duten askotariko eragileez osatuta legoke euskal matxinada. Ba-

lio dezala kontrapuntu gisa *Patria* bezalako mundu ikuskera manikeoek HBoren eskutik pantailak monopolizatu baino lehenago (oxigeno pixka bat).

“Marmotaren eguna dirudi” egiten du purrust liburuak klaseari ala nazioari buruzko eztabaidez jardutean. Eta egiatan hala dirudi. Liburuak erakusten du 60ko hamarkadatik hona eztabaida behin eta berriro eman dela gurean, eta agian garrantzitsuagoa dena, behin eta berriro askatu dela korapiloa. Egindakotik ikasteko balioko al du.

Guztiarekin, liburua aglutinatzailea da. Testua gurutzatzen duen galdera da nola txirikordatu euskal matxinada berria zapalkuntzen aurka egiten duten herri mugimenduekin. Nola? Ekarri dezala liburuak eztabaida. ●



MUSIKA

Muga, poemak, doinuak eta irudiak



JUXE

JOXI UBEDA GOIKOETXEA


Alberto Gonzalezek, 6nemen9, Uler-600 eta Aterkings taldeetan ibilitako musikariak, Xabier Montoiaren *Anfetamiña* (Susa, 1983) poema liburuari musika jartzeko sortutako proiektua da Muga, taldea bainoago, proiektu musikala.

Iñigo Romera baxu jotzailearekin (Cancer Moon, Los Clavos, Cujo, El Inquilino Comunista, Basurita), Iñigo Egillor bateria jotzailearekin (Gringo Arana, Billy Bao) eta Itziar Beristain abeslariarekin batera osatu du, ohiko rock taldearen moldeak gainditu eta proiektu multidiziplinar bat egiteko asmoz, izan ere, musikarekin eta hitzekin batera, irudiek garrantzi handia dute. Arlo horretaz, J.A. Areta Goñi Juxe argazkilaria arduratzen da, emanaldietan irudiak proiektatzen

eta hitz bakoitza modu subjektiboan ilustratzen. Horrela, poesia, musika, irudiak eta ikus-entzunezkoak batzen dituen ekinaldi artistikoa egiten dute.

Xabier Montoiaren poemak rock doinu lasaiekin jantzi dituzte, pop kutsuko melodia politekin, eta ilun samarrak, enigmatikoak edo gazi-gezak diren giroekin. Izan ere, Gonzalezentzat erakargarriak dira poemek transmititzen dituzten giroak, eta haien tonuarekin bat eginda konposatu ditu kantak. Kanta laburrak dira, eta disko osoa berehala entzuten da, erraz eta arin.

Baxuak eta bateriak osatzen duten erritmo oinarri sendoarekin, eta teklatuek ongi babestuta, Gonzalezen gitarrak nabarmentzen dira. Gitarren marrazkiak, ukituak, punteoak, distortsioa,



ANFETAMIÑA MUGA

GAZTELUPEKO HOTSAK, 2019

feedbackak, oihartzunak, efektuak, zaratatxoak. Ahotsak beren tokian daude. Beristainez gain Gonzalezek ere abesten du, eta biek ala biek ongi egiten dute, xume eta ongi, batere handinahikeriarik gabe. Horrekin guztiarekin, Mugak bere giroa sortzen du, berea den doinua.

Aipagarria da Fermin Muguruzaren parte hartzea. *David Bowie*k ilea moztu zuen egunean izeneko kantan errezitatu egiten du. Ziurrenik liburuko poemarik ezagunena da: "Batzenzat / Jesukristo gurutzera / (lapurren artean) / igo zenean, / hasten da historia. / Beste batzenzat, aldiz, / Leninek —txapela kenduz— / 'Botere osoa sobietarako' / deiadar egin zuenean, / Finlandiako geltokian. / Niretzat / David Bowie kile moztu zuen egunean". ●

Pablo Agüeroren *Akelarre* izan da aurtien Sail Ofizialeko euskal filma.

Euskaldunak indigenizatzen ditu Zinemaldiak?

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

inoizko Zinemaldirik arraroenak irabazle atipikoa izan du: Dea Kulumbegashvili zuzendari georgiarraren *Dasatskisi* filmak denetariko erreakzioak eragin zituen prentsaren artean, pelikula maisulantzat jo zutenetik hasi eta huts egindako obratzat jotzen zutenetaraino. Epaimahaiak argiago ikusi du ordea, Urrezko Maskorraz gain emakumezko aktore onenaren, zuzendari onenaren eta gidoi onenaren sariak ere eman baitizkio, 2020ko edizioako garaile nagusi bihurtuz.

Hala ere, 68. edizio honetatik zerbait gogoratuko badugu, ez dira pelikulak izango, pantailetak istorioetan oraindik islarik ez duen –ez da asko itxaron beharko– COVID-19a baizik: lehiaketan inoiz baino film gutxiago, aretoen edukiera mugatuta, segurtasun neurri asko... Pandemiaren Zinemaldia izan da eta, festibalak iraun duen astean zehar behintzat, antolakuntzak kutsatzearen aurkako neurriekin serio jokatu duela

adierazi nahi izan du, horretarako baztuetan erabaki drastikoak hartu baditu ere –Zinemira sailera *Atarrabi et Mikelats* pelikula ekarri zuen Eugène Green zuzendaria kanporatu zuten, bere pelikularen emanaldian maskara janzteari uko egin ziolako–.

Palmaresetik eta koronabirusaren albo-kalteetatik harago, iruditzen zait 2020ko honen ondoren momentua iritsi dela beste eztabaida bat zabaltzeko ere: *Akelarre* filma (Pablo Agüero) izan da aurtengo edizioan Zinemaldiaren eskaparate nagusian ikusi ahal izan den euskal filma; eta pelikula konkretu horrek ikusle honengan eragin duen dezepziotik harago, Donostiako festibalak nabarmentzen dituen euskarazko lanak kritikoki aztertzeke ordua ere iritsi da.

2014an *Loreak* Sail Ofizialera iritsi zenetik aurreko hamarkadetan baino handiagoa izan da euskarazko zinematigintzaren presentzia Sail Ofizialean, baina zerbait aldatu da Jon Garañok eta

68. ZINEMALDIKO PALMARESA

Urrezko Maskorra: Dasatskisi (Dea Kulumbegashvili).

Epaimahaiaren sari berezia: Crock of Gold (Julien Temple)

Zuzendari onena: Dea Kulumbegashvili (Dasatskisi)

Emakumezko aktore onena: Ia Sukhitashvili (Dasatskisi)

Gizonezko aktore onena: Mads Mikkelsen, Thomas Bo Larsen, Magnus Millang eta Lars Ranthe (Druk).

Gidoi onena: Dea Kulumbegashvili (Dasatskisi)

Argazki onena: Yuta Tsukinaga (Nakuko wa ineega)

Jose Mari Goenagak zuzendutako istorio hartatik: gaur egungo Euskal Herri kaletarra erakustetik, euskaltasunaren esentzia ardatz zuen istorio batera pasa ginen (*Amama*, 2015), Altzoko Handiaren historia kontatzen zuen filmera gero (*Handia*, 2017) eta euskal dantzetara hurrengo urtean (*Dantza*, 2018), aurtengo sorgin-ehizara iritsi aurretik.

Iruditzen zait badirela nahiko elementu pentsatzeko Zinemaldiak azken urteetan euskararekin lotutako imajinario oso zehatz bat zabaldu duela, iraganarekin, esentziekin eta folklореarekin lotuagoa dagoena benetako euskaldunen –uler bedi “euskal hiztunen”– bizimoduarekin baino. Joera horrek subalternitatera kondentzen gaitu, pelikula arruntak egiteko hizkuntza nagusiak hautatzera eta euskara “gure” gauzez aritzeko bakarririk erabiltzera. Eta uste dut oraindik ez dela berandu tendentzia hori aldatzeko, Sail Ofizialean bestelako euskal zinematik baten aldeko apustua eginez. ●

Visión nocturna
filmeko zuzendaria
berak jasandako
bortxaketaz ari da.

Film dirudun eta ederren erakusleihotik haratago

AINHOA GUTIÉRREZ DEL POZO

Zinemaldia igarota izaten da lehiatu-tako filmen sari-banaketa ekitaldia. Bertan, sail bakoitzari dagokion sariduna aukeratzeaz gain, Sail Ofizialari dagokion palmaresa ere osatzen da: aktorerik onena, gidoirik onena, filmarik onena... Batzuetan zalantza sartzen zait ez ote dituzten sariak egiten filmak; hau da, sariak lortzeko film hutsak ez al diren izaten. Jar dezagun aktore hori filmak ikusgarritasuna har dezan, edo beste zuzendari hori zine-jaialdi jakin batean sartu ahal izateko. Horren aurka, beste balore batzuk saritzen dituzten dominak proposatuko ditugu hemen: beste Zinemaldiaren beste sariak. Eta agian filmak horien bila hasiko dira gerora...

1) DOLUA EGITEN LAGUNTZEKO FILMAK

Bertan jasoko ditugu zuzendariak bizitako gertakari bat gainditzera bidean egin diren filmak. Horien artean Carla Simón eta Dominga Sotomayorren *Correspondencia*, euren kezka pertsonalak handi-

tasunarekin harremanean jartzeagatik; Camilo Restreporen *Los conductos*, zeinak aktore protagonistaren bizipen errealek kontatzen dituen; eta Carolina Moscosoren *Visión nocturna*, zuzendariak jasan-dako bortxaketa gainditzeko lana dena.

2) ZINEMA ARETOA URRUNERA DARAMATEN FILMAK

Ohiko ez ditugun munduetarako bidaiak. Honetarako aukeratuak Dong Singyiren *Gē shēng yuán hé màn bàn pāi*, kartzelako itzulera txinatar herrixka batean izan daitekeenaren leiho izateagatik; Otávio Almeidaren *Los niños lobo*, Angolako gerraren arrastoak kubatar haurrengan izan daitezkeenaren proposamena egiteagatik; eta Grigory Kolomytseven *Chupacabra*, errusiar haur baten barne munduan bidaiatzeagatik.

3) IRUDITERIAK ZALANTZAN JARTZEKO SAIKERA-FILMAK

Ziurtasunak apurtzeko jaiotakoak dira Akio Fujimotoen *Umibe no kanojotachi*,

migrazioak emakumeengan dituen bera-riazkotasunen erakusle; Aitziber Olaskoagaren *Jo ta ke* gatazkaren inguruan pentsatzen jarraitzeko bidea zabaltzeagatik; eta Naïla Guigueten *Dustin*, hegemonikoa ez den gorputz baten bitartez bestelako kontakizunetara hurbiltzeagatik.

4) GEZURRA ETA EGIAREN ARTEKO MUGA ERAISTEN DUTEN FILMAK

Fikzioaz eta errealtateaz ari dira Jaione Cambordaren *Arima*, zeinak herri baten biztanleen presentzia konplexutzen duen; Nuria Giménezen *My Mexican Bretzel*, artxibo baten mamuak eraikitzeagatik; eta Nicolás Peredaren *Fauna*, barne eta kanpoko munduen oreka zalantzan jartzeagatik.

Gertakari deserosoak filtro bidez ikusteko gailu hutsa izatetik at, eska diezaiogun zinemari gehiago. Behar dezagun ikuslea bere tokitik mugi dadin, babes-neurriak ken ditzan, interpelatua senti dadin; eta ea aretotik eztabaidarako gogoz ateratzea lortzen dugun. ●

Oriol Malló Vilaplana

KAZETARIA



KONTU-GARBITZEA

“Ustelkeriaren aurkako fiskal batek eta BBVAko abokatu batek emandako informazioan oinarrituta, kronika beltz hau idazteko aukera izan nuen. David Martínez Madero fiskalak bazekien Baltasar Garzón ez nuela batere atsegin –1992an, Olinpiar Jokoak hasi aurretik, independentismoaren aurkako operazio batean atxilotu ninduten–, horregatik jo zuen nigana. Jakina, argitara eman nahi nuen kontu sekretuen kasuan Garzónék jokatutako paper tristea. Liburu honi esker, gainera, laurogeiko hamarkadara egin dut atzera, ezagutu nuen Bilbo intsumiso harekin berriro ere topo egiteko”.

“Intxaurrondoko kuartelaren eta BBVAren artean berezko erlazioa dago”

Ibilbide luzeko kazetaria da Oriol Malló Vilaplana (Bartzelona, Herrialde Katalanak, 1967). Ipar Irlandako eta Yugoslaviako gatazken berri eman ondoren eta memoria historikoa, ekonomia eta nazioarteko gaien gaineko ikerketak burutu ostean, *El libro negro del BBVA* (BBVAren liburu beltza) (Txalaparta, 2020) argitaratu berri du. Bankuaren barrunbeak irekitzen dizkigu, honen jatorri bilbotarretik hasi eta egungo hedapen globaleraino. Mallóren hitzetan, “denak balio du” esaldiaren adibiderik gertukoena da BBVA.

LEIRE REGADAS JORDI BORRÁS

Luzaroan eduki duzu liburu hau kutxa batean gordeta, argitaratu ezinik. Nolatan?

Labur-labur: kazetari batek saldu ninduen, bankuak prestatzen ari nintzena jakin zuen eta eskusiba galdu nuen; jendearengan konfiantza gehiegi izatea izan zen nire akatsa. BBVAk zituen kontu sekretuen auziari buruzko informazio guztia neukan, ustekabeko lekuko batekin hitz egitea falta zitzaidan soilik. Geroago, argitaletxe garrantzitsu batean argitaratzekotan egon nintzen, baina BBVAk diru-laguntzak ematen zizkien eta bertan behera gelditu zen. Txalaparta argitaletxera bidali nuen arte. Kontu sekretuen auziaz harago, liburua osatzea proposatu zidaten.

Ibilbide bat egiten duzu historian zehar. Frankismoa, Bizkaiko desindustrializazioa, langileen borrokak, euskal oligarkiaren sorrera...

Korruptzioaren gaia ondo dago, baina azken finean korruptzio itsaso baten erdian gaude, betekada hartu dugu, jada ez du inor harritzen. Bilbo sal-

tzea erabaki zutenen oroigarria izan nahi du liburu honek, Bizkaiko industria hondatzea erabaki zutenena, hain zuzen ere. Argi utzi behar da banku honek erabat estutu zuela hiria eta guztiz abandonatu zuela gero, bere adiskidea, Espainiako Gobernua, errepresioaz arduratzen zen bitartean. Getxoko eta Neguriko familiek Bilbo saldu izanak industria sektorearen galera ekarri zuen, langile klaseak ordaindu zuena. Pedro Luis Uriarte BBVko presidente ohiak mafia baten biktima izan zela dio orain, baina... tira, inork ez du negarrik egiten mafien arteko istiluak direla eta.

BBVAk izan nahi zuen botere horren isla ikus daiteke arkitekturan, liburuan azaltzen duzun bezala. Zein izan da Bizkaia Dorrearen bilakaera?

“Diruaren arkitektura” deitutakoaren arabera, bankuak hirien sinbolo izango ziren. Bizkaia Dorrea hiri zibilizatu eta burgesaren monumentu bihurtuko zen, etorkizun oparoaren ikur. Francisco Gonzalez BBVAko presidente izendatu zuten



"MUNDUKO KAPITAL FLOTATZAILEAREN AMETSA BETETZEN ARI DA BOTERE FINANTZARIOA: ARAU GUZTIEN GAINETIK EGOTEA".

unean galdu zuen zentzua Bizkaiko Dorreak, botere guztia Madrilera eskualdatu zutenean. Ironikoa da orain, besteak beste, arropa denda merke bat hartuko duela bere baitan, euskal langile klaseak duen diru-ahaltenaren isla. Bizkaiko Dorreak izango zuen boterea erakusten du orain Iberdrola Dorreak; 165 metroko eraikina hirian nork agintzen duen argi izan dezagun.

Jersey irlako kontu sekretuen gaian, zein da gakoa?

Jerseyko kontu sekretuen kasua *show* mediatiko bihurtu zen 2002. urtean. Iru-diteria kolektiboan geratu zen ideia nagusia izan zen Neguriko familiek BBVA-ren boterea galdu zutela. Fokua beste toki batean jarri beharko genuke ordea; berezko erlazioa dago Itxaurrondo eta bankuaren artean. José Manuel Villarejo terrorismoaren aurkako komisarioa edota Félix Sanz Roldán, Espainiako Inteligentzia Zentroko buru ohia izandakoa –orain Iberdrolan dagoena– horren erakusle; nahi zuten guztia egiteko in-punitatea zutela bazekiten, bai komisaldegieta zein bankuen kudeaketan. Espainiako estolden aurrean ezikusia-

rena egiten zuen sistema antolaketaren zutabe dira.

Paradoxikoki, Baltasar Garzón epailea izan zen in-punitateari argi berdea eman ziona.

BBVAko kontu sekretuen kasuak aurrekari juridiko bat sortu zezakeen zigorgabetasunaren aurrean. Ez zen gertatu. Garzón arduratu zen kasuarekin behin betiko amaitzeaz, Juan Carlos I eta José María Aznarren enkarguz. Jakin bazekiten informazio horretatik tiraka argitara atera zitekeela nola sartu ziren legez kanpo multinazional espainiarrak Latinoamerikan, beraz ezin ziren arriskatu. Ondorioz, Neguriko familien narratibaz eta "iraultza zergaren" istorioaz harago badirudi ezer ez zela gertatu.

Bankuek beti irabazten dute?

Denok dakigu nola determinatzen dituen guztion bizitzak geroz eta indartsuagoa den bankuen botereak, gobernuen gainetik. Prekarietatearen kapitalismoa da, bankuak milioika herritar harrapatzen ditu; lan duinik gabe, ondasun publikorik gabe, bizi-baldintza duin eta egonkorrik gabe. Munduko kapital flotatzailearen

ametsa betetzen ari da botere finantzarioa: arau guztien gainetik egotea etxebizitza bezalako funtsezko ondasunak bereganatuz. Bestalde, bankuen erabateko digitalizaziora hurbiltzen ari gara pixkanaka, laster ez da ia bulegorik egongo, langileak kaleratuko dituzte eta erabiltzaileak abandonatuko dituzte. Baina hori ez da berria...

Zein alternatiba du orduan langile klaseak? Banku publikoa aukera bat izan daiteke?

Caixabank-Bankia bat-egitearekin gertatzen ari dena lotsagarria da. Banku publikoaren eztabaida mahai gainean jartzen ari den arren, Europako Batasunak beti eragotziko du. Izan ere merkataritza askeko itun hedatua da, merkatu askea defendatzeko betebeharrak basatiak inposatzen dituen, enpresa handien, korporazioen eta monopolioen alde egiteko. Zaingo ekonomikoa izugarria da, dena dago baldintzatuta pribatizazioen alde. Ez dakit zein den alternatiba, baina argi dagoena da EB klase bat defendatzeko jaio zela eta bere menpe gauden bitartean oso zaila izango dela banku publiko bat izatea. ●



BERANDUEGI
KRONIKA SERIOSA EGITEKO



BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS

Koronabirusak EAJren militantzian sarraskia eragin du, Alderdi Egunean ikusi denez



EAJk ofizialki zabaldu duenez, aurten ez da Alderdi Egunik ospatu COVID-19aren aurkako neurriak direla-eta. Kauldi Ibinarriagabeitia alderdikideak Beranduegi azaldu dionenez, ordea, jeltzaleek ohiko moduan ospatu dute aurten ere alderdiaren jaia, baina oso jende gutxi joan da eta segurtasun neurrien aitzakiarekin estali nahi izan dute. "Forondarra iritsi eta horrek Sahara ematen zuen. Batzokiz batzoki galdezka hasi ginen ezer kristo. Total, afiliatu pila bat aka-


tu duela birusak, klaro, gazte-gazteak ere ez gara honezkero eta... Azkenean Joseina Etxeberriaren disko-festa ere suspenditu behar izan genuen". EAJk azkeneko hauteskundeetan botoa emateagatik kutsatu eta hil ziren militanteei omenaldia egingo die "hildako gudariak merezi duten bezala" eta plan bat martxan jarri du gazteak bazkietzera animatzeko. "40-50 urteko jendearen odol berria behar du Euzkadik", azaldu du Ibinarriagabeitiak. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Saiatu dira, baina...



Geltzaleak



@GALLINAVASCA



HKANF Herri Kirolletako Askapen Nazionalerako Frontea auzkeztu dute

FLNC korsikarraren prentsaurreko jendetsuez geroztik, ez da status quo-a hainbeste kikildu duen deus ere egin, herri kirolariek mikrofonoak hartu dituzten arte. Baiko enpresako pilotari guztiak –inork ere espero ez zituen salbuespenak salbuespen–, lehen eta bigarren mailako aizkolariak... Ez da giro zaplako batekin K.O. utz zaitzaketen gizasemez osatutako sektoreetan. "Ez da unea horrelakoak egiteko", adierazi du patronalak, patronalaren dekalogoari

tiraka. Kirolariek aldiz esan dute urrats gehiago emango dutela: "Ikusiko duzue harriak arrastaka eramaten dituzten idi puskak borrokara batzen direnean, horien pentsaurrekoak bai izango direla muuundialak kar kar kar", azaldu du Aitzol Atutxa HKANFeko bozeramaileak. Dioenez Julen Gabirondo pentatloilaria ere gertu omen dago soinekoa urratu eta libertaterantz arineketan joateko, "eta hori, adiskideok, ez da ahuntzaren gauerdiko eztula". ●

Kamiseta berriak!

Agroekologia mugimendua
eta ARGIA elkarlanean



%100 kotoi organikoa.

19,5€

Kamiseta erosita, 2€-ko
ekarpena egingo diozu
agroekologia mugimenduari
eta beste hainbestekoa ARGIAri.

**LURRA
HERRIARI
DEIKA**

Jaten dugun elikagai bakoitzarekin,
nekazaritza eta gizarte eredu bat
bultzatzen ari gara. Beraz, jatea
bihur dezagun egunean hiru bider
egiten dugun plazerrezko iraultza!

Erosteko: azoka.argia.eus 943 37 15 45

Jakoba Errekondoren liburu berria

Etxeko landareak



Liburuek etxeko poza dira. Ongi zaintzen dituenak bizitzaren edertasuna jasotzen du opari. Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu: zein landare aukeratu txoko bakoitzerako, gaixotasunei nola aurre egin, landare bakoitza nola ureztatu, ongarri naturalak nola egin, haziz doan ahala nola birlandatu... maite dugun landare hori nola ugaltu ere ikasiko dugu. Zaintzen asmatzeko beharrezkoena, lore bakoitza ezagutzea da. Liburu honetan deskubrituko dituzu bakoitzaren jatorria, beharrak eta gustuak. Bizitzaren ederra loratu dadila!



25€

Orri kop.: 248

EROSTEKO

argia.eus/azoka
9433 7 15 45

 **ARGIA**
www.argia.eus

BIZI BARATZEA
www.bizibaratzea.eus